



ARGIA



TXOSNAK ETA TICKET BAI

**Jai eredua
paper artean
itota**

30-35. orrialdeak



**Parisen bozkatu
den legediaz
irakurketa
kritiko bat**

12 | HERIOTZA LAGUNDUA



**Euskal
sorkuntzaz
bete da
Lapurdiko plaza**

24 | ZIBURUKO AZOKA



**Señora gazteak
eta helduak,
oholtza lapurtuak
berreskuratzen**


48 | SEÑORA SARIKETA

#2.921 | 2025/06/15 | 4 €



DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #308
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



BEGOÑA PEDROSA LOBATO

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBURUA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **MARISOL RAMIREZ / FOKU**

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | MIKEL OTERO
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 46 | DENBORA-PASAK
- 47-52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA



14 | JOXE AUSTIN ARRIETA

Palimpsestoa liburuaz elkarrizketatu du Miel A. Elustondok. Zertaz idatzi duen eta zein moldetan. Elkarrizketan zehar atera dira gerrari eta gerra osteari lotutako familiako pasarteak, euskararenak eta baita ibilide politikoari buruzkoak ere. Bizitzaren itxierako fasean, aitari entzuten zizkion hitzak etortzen zaizkio orain Joxe Austini: "Irabazi bagenu, sikiera..."

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Duintasunez hiltzeko eskubidea baino lehen, duintasunez bizitzeko baldintzak zer?

Nicolas Goñi

24 | KULTURA | V. ZIBURUKO AZOKA

Euskal sorkuntza patxadaz aurkezten dizun plaza

Jenofa Berhokoirigoin

30 | GIZARTEA | TICKET BAI

Espazio autogestionatuak merkantilizatzeko egitasmoa

Eneko Imaz

36 | KULTURA | JUAN MARTIN ELEXPURU

"Lokalizatuta dauden epigrafeak leku batean biltzeko ahaleginik ez da egin"

Miel A. Elustondo

48 | KULTURA | BERTSOLARITZA

V. Señora sariketa: itzulera bat, señorak eta señoritak

Paula Amilburu


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiar Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Fernández, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500053


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.





Erabaki

Ehundaka ikurrinek desfilatu dute ekainaren 7an Bilbon, Gure Esku-k deituta, "Herri libre bat. Euskal Herriak erabaki" lelopean. Bezperan, zesta puntako euskal selekzioek Nazioen Ligako finala jokatu zuten Gernikan, ofizialki lehenbizikoz, gizonetakoek Frantziaren eta emakumezkoek Espainiaren aurka. Sinbolismo handiko partidak biak, sari banaketak argi erakutsi zuenez: biharamunean Bilbon ikusiko ziren "Euskal Herriak erabaki" zioen ikurrin mordoa publiko artean, txalo zaparrada pilotarientzat, eta txistuak espainiar ereserkiarentzat. Lau pilotariak euskaldunak, Berriatuakoak euskal selekziokoak, eta Markinakoak espainiar selekziokoak. Zortzi bat kilometro izango dira euren sorterrien artean. Mundu bat. "Pilota gailendu zaio politikari", edota, nola ez, "politika eta kirola ez dira nahasi behar" aldarri klasikoak entzun izan ditugu egunotan. Selekzio nazional batekin ala bestearekin jokatzek, erabakia ulertuta ere, karga politikorik ez balu bezala. Ekainaren 8an Martin Zubimendi eta Mikel Oyarzabal Espainiako selekzioko futbolariak gol bana sartu dute Portugalen aurka. Golak ospatzea erabaki du euskaldun askok.

Osasun arreta euskaraz bermatzeko zortzi eskaera egin dituzte EHEk eta Aintzatek

ERREDAKZIOA



EHE

O sasungintzako 501 langilek bat egin dute zortzi eskaera zehatz dituen manifestuarekin. Helburua, osasun arreta euskaraz eskaini, eman eta bermatzea, "edonon eta edonoiz, maila guztietan eta ahoz zein idatzizko harremanetan".

Euskal Herrian Euskarazek eta osasungintza euskalduntzeko Aintzat mugimenduak aurkeztu dute manifestua. Ebidentzia zientifikoak argi uzten du komunikazioa gakoa dela kalitatezko osasun arreta jasotzeko, eta beraz, gaixoak hautatutako hizkuntzan izan behar duela harreman hori. Hala adierazi dute, eta abiapuntu horri tiraka, eskaera zehatzak egin dituzte, pazienteen nahiz osasungintzako langileen eskubideak bermatzea ere helburu.

Puntuz puntu:

- Arretaren kalitatea eta ekitatea ziurtatzeko, osasun arreta euskaraz ematea eta jasotzea paziente euskaldunen oinarritzko eskubidea da.

- Lehen mailako arreta euskaraz eskaini eta eman behar da leku guztietan.

- Euskarazko zirkuituak martxan jarri behar dira, UEMAko herrietatik eta

lehen mailako arretatik abiatuta, ospitaletako arreta espezializaturaino.

- Ikasketa prozesu oro euskaraz bermatu eta lehenetsi behar da (Lanbide heziketan, unibertsitateetan, osasun arretaren formakuntza esparru guztietan eta osasun zentro zein ospitale orotan).

- Gaixoak ez luke eskaera berezirik egin behar, euskarazko arreta jaso ahal izateko.

- Historia klinikoa euskaraz lantzeko eta jasotzeko aukera bultzatu behar da.

- Ebaluazio prozesuetan (adibidez ESlen ebaluaketan) baloratu behar da arreta euskaraz emateko gaitasuna eta horri buruz jasotako formakuntza.

- Arreta euskaraz emateko baliabideak sortu eta garatu behar dira.

EAEko Osasun Ituna eztabaidatzen ari diren honetan, bertan parte hartzen ari diren eragileei exijitu diete eskakizunak bete ditzatela. "Ez da herri-itunik egongo, ezta elkarbizitzarik ere, euskarazko osasun arretarik ezean". ●

Gasteizko Korda espazioa hustu dute

ENEKO IMAZ GALPARSORO

E kainaren 4 goizean burutu du Poliziak desalojoa, atea rotaflexarekin ireki eta barruan zeuden pertsonak aterarazi ondoren. Ertzaintzak pertsona bat zauritu du buruan eta furgoneta batean eraman du. Herritarren "babes itzela" eta Ertzaintzak erabilitako "biolentzia handia" nabarmendu ditu Kordako kide Haize Agirrek, ARGIari eginiko adierazpenetan.

Arratsalde horretan bertan, ehunka lagun mobilizatu dira Gasteizko Alde Zaharreko kaleetan barrena, *Autodefentsaz, lotu Korda auzora* lelopean. "Desalojo bat, beste okupazio bat" aldarria izan da manifestariek gehien oihukatu dutenetako bat. Ordurako sarrera tapiatuta zuen Korda espazioaren aurrean eman diote amaiera manifestazioari, Kordako kideen hitzartzearekin: desalojoan ertzainek buruan zauritu duten kidea etxean eta "ondo" dagoela jakinarazi dute.

"Poliziaren eta gure bizilagunak etxegabetzen dituztenen gorrotoa sentitu dugu", adierazi dute Kordako kideek. Horrez gain, desalojoa gauzatzeko Ertzaintzak hamabi orduz ezarritako dispositibo poliziala salatu dute: "Zortzi furgoi, drone bat eta bi patruila alde batetik bestera uneoro. Korda baino balio ekonomiko handiagoa du horrek, eta erakusten du jabetza pribatua beste ezeren gainetik babesten dutela".

UDALA ETA 21 ZABALGUNEA, ERANTZULE

Korda espazioko erabiltzaileek pasa den apirilean jakin zuten Gasteizko Udalak espazioa husteko agindua helarazi zuela, eta maiatzean ezagutu zuten horretarako data: ekainaren 4a, asteazkena. Gasteizko Udalaren 21 Zabalgunea sozietatea ere hizpide izan dute mobilizazio amaierako hitzartzean, haren jabetzakoa baita espazioa: "Berresten dugu ez dagoela erdibiderik euren jabetzaren eta gure bizitzaren artean. Beren jabetzek gure bizitzari etengabe eraso egiten dienez, guk haien jabetzari eraso egiten jarraituko dugu". ●

MELOI SALTZAILEA

Diktadura



JUNE FERNANDEZ

Erdaraz hitz egiten duzu, Francok nahi zuen bezala' kamiseta dut gogoan egunotan, OlaXonMarrío Galiziako sortzaile digital kuir eta independentistaren diseinua.

Gogora ekarri dut, lehenengo, Isabel Díaz Ayusok alde egin duenean Imanol Pradales lehendakariak euskaraz hitz egiteko hautua egin duelako presidente autonomikoen arteko bilera batean. Ondoren ere, Madrilgo presidentek PPre mitin batean Euskal Herriko Unibertsitatearen siglen inguruko erabakia kritikatu duenean; alegia, errektoreak iragarri duela UPV/EHUren ordezkariak EHU siglak erabiliko dituztela hemendik aurrera, irudi korporatiboa berrizteko eta Unibersitat Politècnica de Valènciaarekin dagoen nahasmendua saihesteko. Bada, Ayusok mitinean esan du halako keinu populisten bidez ezartzen direla diktadurak. Halako tranpa erretorikoak ohi-koak dira ultraeskuinean; gogoratu Netanyahuk alderatu zuela "Palestina libre" aldarria Holokaustoaren aldeko aldarriarekin.

Bitartean -hots, lerro hauek idazten ditudan bitartean- Israelek Askatasunaren Ontzidia atzeman du itsasoan, eta bere portu batera eramaten ari da. Greta Thunberg ekintzailearen eta *Game of thrones*en parte hartzeagatik aurpegi ezaguna den Liam Cunningham aktorearen presentziagatik arreta mediatiko berezia piztu du egitasmo honek, eta Netanyahuk azkar isolatu du itsasontzia, genozidioa aurrera eramateko bere asmoak zapuztu ez ditzan. Baina Netanyahuren gizateriaren aurkako krimenak ez dira Ayusorentzat diktadura baten erakustaldia, baizik eta demokrazia liberal baten defentsa politika.

Ez dugu besterik espero Franco eta Hitlerren oinordekoengandik, baina bai ordea euskal instituzioetatik. Bada garaia Israelekin harreman ekonomiko oro apurtzeko, zuzenean eta baita euskal enpresek ere politika hori bultzatzeko: Ertzaintza, EHU, CAF, Bilboko Metroa... International Crisis Groupen txostenak argi adierazi du: ahozko gaitzespena ez da nahikoa frogatzeko historiaren alde onean gaudela, hau da, Netanyahu eta Ayusoren aurrean irmo.

Pena Euskaraldia amaitu dela, bestela ondo legoke antolatzaileei hurrengo leloa proposatzea: 'Euskaraz hitz egin ezazu, Ayusok nahi ez duen bezala'. Are gehiago, plan bikaina imajinatu du *El Mundo Today* egunkari satirikoak: "Milaka madrildar katalanez hitz egiten hasi dira Ayusok alde egin dezan". ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



EKONOMIA

Eraikinak baino gehiago



NAROA ELORTZA
GORRUTXATEGI

Ez gaude ohituta, zoritxarrez, berri onak topatzera. Are gutxiago etxebizitzari eta eraikinei buruz hitz egiterakoan. Izan ere, etxebizitza oinarritzko eskubidea izan arren, luxua izaten jarraitzen du, gazteak tutoreen etxean mantentzen dituen pribilegio bat. 2025ean egindako lehen Soziometroak ere argi zioen: EAEko biztanleen artean bigarren kezka nagusia da etxebizitzarena. Dena den, ez da dena iluntasuna, eta pasa den asteak denetari-ko berriak utzi zizkigun.

Iruñetik iritsi zitzaigun berrietako bat: 57 urteko emakume bat etxegabatu behar zuten asteazkenean, minbizia eta %75eko desgaitasuna duena. Iruñerriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak 7:30ean jarrita zuen etxegabetzea gelditzeko hitzordua. Eta, tentsio handiko uneen ondoren, lortu zuten etxegabetzea gelditzea.

Gasteizen, berriz, Korda gunea desegin zuten egun berean. Eskuburdinak, zauritu bat eta poliziaren indarkeria. Gauza onik ez, negozioak bizitzaren gainetik jarzen direnean.

Antolakuntzak eta auzolanak ez ditu beti berri onak ekartzen, argi dago. Horregatik da hain garrantzitsua etxebizitzaren, eraikinen eta zoruen inguruko alternatiba sendoak sortzea. Eta sortuta daudenak, indartzea. Halaxe hasi genuen astea, Coop57 kooperatibak etxebizitza kooperatiboa finantzatzeko abiarazitako kanpaina batekin. 34 eguneko epean 2 milioi euro batu nahi zituzten; 13 ordu nahiko izan ziren.

Alternatibak egon badaudelako, ekainaren 13an Iruñeko Katakarak-era joatera gonbidatu nahi zaituztet: zoru kooperatibo eta komunitarioen esperientzien arteko topaketa interesgarria egingo da bertan. Parte-hartzaileen artean, La Dinamo, Biziola, Katakarak eta Amillubi. Izaera ezberdineko proiektuak izanik ere, guztiek izan dute Coop57 bidelagun; ziur aski, gaur egun proiektu eraldatzaileak finantzatzeko dugun tresna baliagarri-
netako bat. ●

ANALISIA



WIKIMEDIA COMMONS / WHIT WELLES

National Geographic gutxiago, Kropotkin gehiago

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Eskatutako kafea zerbitzatu zain nago tabernan, telebistan baleen inguruko dokumentala: “Arrak borrokan ari dira emea nork estaliko, borroka gordina eta arriskutsua, irabazle bakarra izango duena”. Soinu banda epikoak indartzen du ustezko gudaren intentsitatea. Irudietan, balea ederrak ur azalean saltoka bata bestearen ondoan, elkar ukitu ere egin gabe. Eta nire kabutan, “borrokan? Edo jolasean?”.

Ia 30 urte joan dira gaztetzeko formazio ikastaro batean hizlari bati entzun nionetik National Geographicen dokumentalek AEBetako Defentsa Departamentutik dirutza jasotzen zutela, animaliak *diren bezala* erakutsiz ideologia kapitalista naturalizatzen –hortaz, desideologizatzen– zutelako. Ordutik beste begi batzuekin ikusi nituen bazkalosteko La2eko dokumentalak: izaki bizidun guztiak uneoro defentsan edo erasoan; bizirautearen lehia gupidagabearen lege naturala.

Garai berean irakurri nuen, gaztetzeko hizlariak aipatuta, Piotr Kropotkin naturalista eta anarkistaren *Elkarri laguntzea: eboluzioaren faktore bat* liburua, 1902an argitaratua. Liburuaren asmoa Charles Darwinen *Espezieen jatorria* (1859) lanari eman zitzaion erabilera maltzurra desmuntatzea zen, burgesiak biologo ingelesaren lana baliatu baitzuen darwinismo soziala inposatzeko –animalien artean bezala gizakien artean indartsuenaren biziraupena da naturaren legea, lehia bidez erabakitzen dena–. Sarreran irakurri daitekeenez, Darwinek berak salatu zuen bere ikerketen desitxuraketa.

Kropotkinek ez du lehia ukatzen, baina bere lanaren abiapuntua kontrakoa da. Naturan elkar-laguntza da nagusi, eta are garrantzitsuagoa: gehien kolaboratzen duten espezieak dira ugariak, ergo, arrakastatsuenak. Elkar-laguntza praktiken ikerketa da liburua, bakterietatik hasi eta gizakietaraino, eta deskribatzen ditu animaliak ez soilik bizirauteko kolaboratzen, baita lasai asko bizitzaz gozatzen ere, jolasean, kantuan. Liburua amaitzean, irakurri aurretik baino toki abegikorragoa sentitu nuen mundua, eta sentitu nuen, batez ere, are abegikorragoa egin genezakeela.

Lehia, gerra, hierarkia, indartsuenen (bihozgabeen) biziraupena naturalizatzeak estrategikoa izaten jarraitzen du boterearentzat. Izan animalien dokumentalekin, mundu mehatxagarria marrazten diguten agintarien ahotik edo auzo beldurgarriak aurkeztzen dizkiguten hedabideen bozgorailuetatik. Horrela naturalizatzen dira armagintza eta Polizia, beste herrialdeen eta auzokideon aurkako gerra, soldatapeko lana, biolentziaz kargaturiko egunerokotasun hau guztia.

Eta, hala eta guztiz ere, distopia garaiotan ere, elkar-laguntzaz inguratuta gaude. Begira diezaiogun munduari betaurreko horiekin ere, arnastu dezagun hori ere, ez dezagun sinetsi gure patua gerraren geneak erabakita dagoela, sinets dezagun gure eskuetan dagoela etorkizuna... elkar-laguntza antolatuz gero. National Geographic gutxiago, Kropotkin gehiago. ●

48

eragile batu dira Donostian
turistifikazioaren aurka
antolatutako manifestaziora.

BiziLagunEkin desazkunde
turistikoaren aldeko Donostiako
plataformak ekainaren 15erako
deitu du manifestazioa, Europa
Hegoaldeko beste hainbat hiritako
eragileek bezala.

13

urte eta 6 hilabeteko kartzela
zigorra berretsi du EAEko Auzitegi
Nagusiak Mario Lópezentzat,
Bizkaiko Lurralde Auzitegiak hartu
zuen erabakia ontzat emanda.

Epaiaren arabera, Gernika
saskibaloit taldeko entrenatzaile
ohiak "sexu eraso jarraituak" egin
zizkion neska adingabeti bati.

218

akademiakideren artean aukeratu
dute 111 Akademiaren aurtengo
saria: Miren Amurizaren Pleibak
nobela. Aurtengoa izango da
azken saria, akademiak bere
jarduna amaitutzat emango baitu,
proiektuak aurrera egiteko "behar
besteko babesik" ez duela-eta.

*"Baimenik ez dugun ordu batzuetan
ospitaleko materialarekin kalean
egoteagatik zigortu gintuzten"*

JESUS SANCHEZ ETXANIZ

Sanchez pediatriari kargu hartu
dio Osakidetza, hil zorian zegoen
ume bat artatzeko ospitaleko
baliabideak "lan ordutegitik kanpo"
erabiltzeagatik. "Haserre, etsita eta
amorratuta" dagoela adierazi du
medikuak.

2025-05-30



*"BAKE PROZESUAN ATZERAEZINA
BILAKATU DUGUN URRATS BAKOITZAK
HERRI EGIN GAITU"*

Ipar Euskal Herritik bake prozesua sustatzeko sortu zen
Bake Bideak. Bakegileen zeregina ETA armagabetzeko
ekinbide zibila antolatzea izan zen. Orain, desegingo
direla iragarri dute bi ekimenek.

2025-06-06

*"Eskola txikiak bizirik gaude, herri
eta auzo txikiak bizirik gaude, eta
hori ospatzeko elkartu gara"*

IRATI MANZISIDOR

Gipuzkoako Eskola Txikien
Irakasleen koordinatzailea.
Aurten Ezkio-Itsason ospatu
dute urteroko festa eskola
txikiek.

2025-06-08



Itzaletan



DIANA FRANCO EGUREN

Oraindik joan den astea asimilatzen nabil. Boterean dauden eta botere erduetan eragin nahi dutenen aldarriak ozen entzun ditugu nonahi. Sareetan zein kalean.

Izan diren manifestazio ezberdinetan, herrietako giza eskubideen garapen maila agerian geratu da. Amerikako Estatu Batuetako Kalifornian izandakoetan, nabarmen hautematen da herri horretan giza eskubideek egin duten atzerakada. Irakurri dudana, Kaliforniako migratzaile ilegaleen deportazioak gelditzeko manifestatzaileen ahotsak bortizki isilduak izaten ari dira. Herri horretako agintarien arabera, ilegalek ez lukete ahotsik izan behar. Haien aldarrikapenak akabatzeko edozer egiteko prest ageri da AEBetako gobernuak. Eztabaidarako ez da lekurik ilegalak direnekin.

Bizi dugun garaiotan, zenbait herrian botere eredu zapaltzaileak itzaletatik irten dira, lotsagabe, inoiz baino indar gehiagorekin, ahots ozenez inguruan dituzten guztiak isiltzeko asmoz, euren klase posizioa babeste aldera. Zapalduak osteratzaileak bueltatzera behartuta ikusten dute euren burua. Bizitza duina aldarrikatzeko agerraldietan, detekzio automatizatua eragozteko aurpegia estali (jada ilegala bilakatu ere) edota mugikorrak Faradai zorroetan gordeta mantendu behar dituztelarik, ilegalak izanda bizitza arriskatzeko ari dira-eta. AEBetan hamaika milioi migratzaile ilegal dago. Trump boterean dagoenetik 142.000 pertsona jada deportatuak izan dira, zenbaitetan euren herriak ez ziren tokietara. Guztira milioi bat deportatu nahi ditu Trumpek, egunero 3.000 deportatu beharko dituela aurreikusitako du. Gurean horretara helduko ote gara? Ala giza eskubideetan oinarrituriko gizarte anitzak sostengatzeko gai izango gara? ●

Israel, faxismo garaikidearen epizentroa

AXIER LOPEZ

Israel, artifizialki sortu zenetik, AEBen eta Mendebaldeko bere marxistien interes inperialisten zaindaria da Ekialde Ertainean. Energia baliabideak lapurtzeaz gain, eskualdearen ezegonkortzaile gisa funtzionatzen du, nazio arabiarrek aliantza handia osa ez dezaten. Palestinako lurraldearen okupazio militarra eta lapurreta, zein Libanon, Sirian, Jordanian eta Egipton ere lurrak okupatzeko asmoak, bere logika espansionistaren erakusle dira.

Eratu zenetik, ideologia nagusia nazionalismo sionista da, "bestearen" ukazioa zutabe duena. Horregatik, Israel sistematikoki dago murgilduta Palestinako nortasun nazionala umiliatzeko eta kultura suntsitzeko kanpaina betean.

Bizi-ikuspegi hori da genozidioa egiantan sostengatzen duena, eta ez bere gaitasun militarra. Palestinarren etengabeko deshumanizazioak justifikatzen ditu sarraskitze etnikoa eta gosea arma gisa erabiltzeko politikak, infantizidioa, belizismoaren loriatzea, apartheid eta herri palestinarraren aurkako krimen ororen gorespena.

Kolonialismo supremazista horrek Israelgo gizartea osoari eragiten dio, neurri ezberdinetan. Israelgo Geocartography Knowledge Group egin berri duen inkestaren arabera, israeldarren %82k babesten du Gazako palestinarren deportazio erabatekoa, eta %56k, gainera, bortxazko kanporatzea harago eraman beharko litzatekeela uste du. Okupaturiko palestinarren herri bateko biztanle guztiak hiltzeko aukera %47ak begi onez ikusten du. 2003tik 11 puntu gora egin du genozidioaren aldeko jarrerak.

Palestinarren garbiketa etnikoari buruzko aldarri muturrekoenak ez dituzte

Netanyahu babesten duten alderdi ultrek bakarrik babesten, Likudeko ministroek eta parlamentariak ere bai. Beste inkesta baten arabera, Pew Research Centerrek egindakoa, israeldarren %45ak iritzi ona du Netanyahuaren jardunaz, eta balorazio hori ez da aldatu iaiztik. %75ak uste du israeldarren eta palestinarren arteko konfiantza eza dela oztoporik handiena bake iraunkorra lortzeko. "Elkarrekiko konfiantza falta", esaten die kolono hiltzaileak beren haur jaioberria gosez hiltzen ari zaien gurasoei.

Huts egin duen gizartea da Israelgoa, bizitzaz oinarrituriko printzipioen inguruan abegikortasunik ez duena. Adibide gisa, duela egun batzuk Israelgo Atzerri Ministerioaren azpibatzorde batean gertatutakoa: "Gazan gosetea Israelen irudi publikoan eragiten ari den kalteaz" eztabaidatu zuten. Irudia da kezka, ez ehunka milaka biktimak.

Horrela hobeto ulertzen da "nazioarteko komunitatea" deiturikoaren konfigurazioa. Aldeko 14 boto, zero abstentzio, eta kontrako boto bakarra NBEko Segurtasun Kontseiluaren ekainaren 4ko bozketan. Pertsona bakar batek eskua altxatzea nahikoa izan zen ondokoa betatzeko: "Berehalako su-etena Gazan, baldintzarik gabekoa eta iraunkorra, bahitu guztiak baldintzarik gabe berehala askatzea eta laguntza humanitarioa Gazan sartzeko murrizketa guztiak berehala eta baldintzarik gabe indargabetzea". AEBek Nazio Batuetan duten enbaxadore Dorothy Shearena zen esku hori.

Israel faxismo garaikidearen epizentroa da. Eta historiak, temati, gogorazten digu faxismoa ez dela konbentzitzen, faxismoari aurre egin behar zaiola. ●

Herri libre bat aldarri

ECUADOR ETXEA

BILBO / Milaka lagun elkartu dira Bilbon, ekainaren 7an, *Herri libre bat, Euskal Herriak erabaki* lelopean. "Euskal nazioari bultzada ematea, burujabetzaren bidean urratsak egitea eta erabakitzeko eskubidea gauzatzen hastea" izan ditu aldarrikapen nagusi Gure Eskuk antolatutako manifestazioak.



DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA BAINO LEHEN, DUINTASUNEZ BIZITZEKO BALDINTZAK ZER?

Maiatzaren 27an Frantziako Estatuko Legebiltzarrak onartu zuen heriotzarako laguntza baimentzen duen legea. Askok aurrerapen humanizatza jo arren, lege berri honek kezak piztu ditu pertsona ezinduen es-

kubideen aldeko mugimenduetan. Gaur egungo gizarteak ez badizkie pertsona ezinduei bizi baldintza duinak bermatzen, heriotza lagundurako aukeren zabaltzea "eugenismoari bidea zabaltzea" dela diote.

 NICOLAS GOÑI

Frantziako Estatuan, lege eta justizia arloetan, maiatzaren 26ko asteak zapo atzerakoi xamarra izan zuen: erle hilkortasun handia eragiten duten bi pestizida neoinotinoide debekatu zituzten duela zenbait urte, baina berriz baimentzeko xedea duen lege proposamen bat landuta dute, eta maiatzaren 26ko asteko legebiltzarreko eztabaidetan maniobra itsusiak izan dira salatu du Confédération Paysanne sindikatuak. Hiriguneetan, aire kutsadura apaldu behar zuten araudiak –"isurtze gutiko gunek"– ere erabat bertan behera uztea erabaki dute, legediak hobetzen saiatu baino. Eta A69 autobideko obrak otsailean justiziak geldiarazi arren, Okzitaniako Tolosako Dei Auzitegiak baime-na eman berri dio obren berrabiatzeari, hainbat zuzenbide adituk kritikaturiko erabaki labur baten bitartez.

Hiru kasu horiek eskuinaren garaipen-tzat jo ditu prentsak. Alta, aste horretan, bertze lege bat onartu dute zentroko eta ezkerreko diputatu gehienek bermeare-kin. Lege horrek bizi bukaeraren baldintzak birdefinitzen ditu, konkretuki norbere bizia eteteko erabakiaren aukerak eta baldintzak finkatuta. Teorikoki, eritasun larri eta sendaezina duten pertsonen zuzendua zaie, eritasun horrek bizitza pronostikoa kolokan ezartzen duelarik –bal-

dintza hori hor zegoen jada aurretik ere, Claey-Leonetti legeei esker–, eritasuna fase aurreratuan eta azken fasean delarik. Hori horrela, zabaltu egin ditu aukerak maiatzaren 27ko bozketak. Pertsona horiei eutanasia edo lagundutako suizidioa eskatzeko eskubidea ematen die, ospitale-inguru batean, injekzio baten bitartez.

Lege horren aurreko eztabaidetan, bi iritzi multzo nagusitu ziren: legearen aurkako iritzi kontserbadoreak, zenbatetan erlijio-erakundeek adierazpenetan bermatuak, eta legearen aldeko iritzi aurrerakoiak, norbere gorputzaren gain burujabetza aldarrikatzen zutenak. Aldiz, hedabideetan askoz oihartzun gutiago dute lege horren albo-kalte sozialei buruz alerta jotzen dutenak, nagusiki pertsona ezinduen eskubideen aldeko militanteek.

ESKUBIDE TEORIKOAK ETA TESTUINGURU KONKRETUAK

Militante horietarikoa da Elisa Rojas (Txileko Santiago, 1979) abokatua. Frantzian bizi da, osteogenesi inperfektua du, eta pertsona ezinduen eskubide eta bizi baldintza duinen aldeko CLHEE kolektiboaren sortzaile eta kidea da. Lege proiektu horrek 2024 hasieratik eztabaidak elikatu zituen, eta hastape-netik beraien desadostasuna adierazi zuten CLHEE kolektibokoek. Ez euta-

nasiaren printzipioaren aurka direlako, baizik eta lege horren asmoak eta ezarpen baldintzak ez direlako aski argiki zehaztuak, eta ez dietelako pertsona erien beharrei erantzuten. Pertsona eri edo ezindu batek bere bizitzari buruz hartuko duen erabakian baldintza material eta sozial askok eragina duela diote: egunerokoan zenbateko autonomia duen, nolako harreman sozialak dituen, diagnostiko egokia lortzeko mediku espezializatu bat –edo gehiago– ikusteko itxaronaldia, edota mina arintzeko erremedioak eskuratzeko diren aukerak –bi urte itxaron behar izatea ez delako ezohikoa–. Mina arintzeko erremedioek eragin oso handia dute pertsona horien osasun psikologikoan, eta horrek noski eragin oso handia du norbere bizitzaz hartzeko erabakietan. Gainera, baldintza horiek guztiak oso aldakorrek dira eskualde eta klase sozialen artean: landa eremu periferiko batean bizi den txiro batentzat dena zailagoa da.

Rojasek oroitarazten du Frantzian jadanik bizitza bukaerari buruzko marko legal bat bazegoela, 2005an eta 2016an onartutako bi legeekin. Horiei segi, bizitza pronostikoa epe laburrean kolokan duten pertsona eriei aukera ematen zaie heriotza eragiten duen lasaigarri sakon baten injekzioa eskatzeko. Bozkatu berri



BIZITZARI SO Erresuma Batuan, Not Dead Yet kolektiboak bizitza baldintza duinak aldarrikatzen ditu, heriotza aukerez hitz egin baino lehen bermatu beharreko osagaitzat dituelako. Argazkia: Not Dead Yet Uk, CC-BY 2.0

den legeak, aldiz, marko hau zabaltzen die bizitza pronostikoa kolokan izan gabe, eritasuna fase aurreratuan pairatzen dutenei –hain zuzen, pertsona ezindu askoren egoera da–. Rojasek azpimarratzen du eritasun larriak dituzten pertsonen zaintza egokia emanez gero, gehien-gehienean ez dutela heriotza eskatzen. Askotan, pertsona horien suizidio asmoak eritasunaren diagnostiko eskasaren eta zaintza desgokiaren ondorioak dira.

“GIZARTEAK EZINDUOK EZ GAITU IKUSI NAHI”

Rojasek bere kezka esplizituki adierazten ditu: gaur egungo testuinguruan, lege berri horrek pertsona ezinduen bizitzak arriskuan ezartzen ditu. Alde batetik, marko legala lausotzen duelako, eta bertzaldetik, testuinguru soziala ez delako pertsona ezinduentzat mesedegarria. Azken bi hamarkadotan osasun

sistemaren egoera kaskartu ahala, eritasun larria pairatzen dutenen bizi baldintzak prekarioagoak bihurtu dira. Bestek beste, errentagarritasuna ospitaletan ere bilatzen delako –eta ospitalean, zaintza luzea behar duen paziente bat ez da “errentagarria”–. Orokorkiago, gizartean behar bezala barne hartu baino, gehiegitan instituziotan isolatuak dira pertsona ezinduak, haien askatasunak murriztuta. Hain zuzen, instituziotan gehiegi ezartze hori leporatu zion NBEk Frantziari 2021ean. Gainera, pertsona ezinduen txirotasun maila populazioaren batezbertzekoa baino handiagoa da, eta emakume ezinduek genero bortizkeria gehiago pairatzen dute ere. Rojasek dio osasun-, gizarte- eta harreman-testuinguru honetan presio handia pairatu dezaketela, sufrimenduaren balizko konponbidetzat heriotza onartzeko, sufrimendua saihesteko zaintza egokia jaso beharrean.

Oroitarazten du ere gure gizarteak pertsona ezinduak normatik kanpotzat dituela, eta arlo askotan zamatzat ere bai, beraz inplizituki pertsona ezinduen heriotza askapentzat dutela. CLHEEk argi du: pertsona ezinduen sufrimendua hainbat erabaki politikoren sintoma da, eta arazoa politikoki konpontzen saiatu baino, sufritzen duten pertsona ezinduak azkarrago desagerrarazi nahi izatearen arriskua ikusten diote lege berriari. Gainera, lege honen inguruko eztabaidetan, *mainstream* hedabide handi batzuek jada zilegitzat jotzen dute lagundutako suizidioak seguritate sozialaren aurrekontuari zenbat diru aurretuaraziko dion kalkulatzeko.

Argi izan dezagun: inor ez da betirako osasuntsu. Istripuz hiltzen ez bagara, denak noizbait ezinduak izanen gara, eta hiltzeko laguntza baino lehen, bizitzeko laguntza ongi etorriko zaigu. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com





MEMORIA-ARIKETA DA 'PALINPSESTOA', AHAL IZAN DUDAN ZORROTZENA ETA ZINTZOENA"



Belaunaldi oso baten liburua da *Palinpsestoa*. Idazten dakien modura idatzi du Arrieta Ugartetxeak, eta horixe dateke alde gaitza. Gainerakoan, hortxe gure iragan hurbila, gerra ondoa, apaiz giroa, euskara, militantzia... eta ez hain hurbila ere, senide nagusien gerra garaiko Kataluniako erbestealdia baitu abiapuntu kronologikoa memoria-lan honek.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Neketan ikasi dugu esaten zure liburuari izena ematen dion hitza: palinpsestoa. Begiratu ere egin behar izan dugu, zer esan nahi ote zuen, eta hona: "Aurretik idatzita zegoen testua ezabatu edo estali, eta haren gainean testu berri bat idazten den euskarri bat".

Horixe da palinpsestoa, bai. Erdi Aroan maiz ibiltzen zen, pergaminoak eskas, eta garesti, ziren garaian. Orduan, testu zaharra ezabatu, eta gainean berria idazten zuten. Izenburu arraroa da gaur egun, baina zehatza nire liburu honen ezaugarriari dagokionean, benetan palinpsestoa baita egin dudana: testu

zahar batzuk ageri dira, eta haien inguruan behin eta berriro jardunda, aldatetarako erantsi dizkiet, testua bera palinpsestotuz-edo.

Metafora ere izan omen liteke palinpsestoa, hau da, oroimenaren, identitatearen eta literaturaren gainean hitz egiteko bidea. Esaterako, eta memoriaz ari, iragana ez da erabat ezabatzen, baizik eta geruzaz geruza metatzen da, hainbat esperientziaren gainean.

Bai, asmoz bederen, horrelakoxe zerbait da. Memoriaren berreskurapen zirkular moduko bat, esango nuke. Eta "zirkularra"

diot, hasi eta buka leku berean egiten delako, Oreretako Zumardian, alegia, Koldo Mitxelenari eskainitako eskulturaren, eta, are, eskulturaren idatzita dagoen esaldi polit eta iradokitzailean: "Ez gaitezen beti, hainbeste aldiz egin dugunez, huts hutsetik abia: lur landuan aisago ereingo dugu erein behar dugun hazi berria".

Liburuak bazukeen bestelako titulu bat: "Barne Produktu Gordina".

Halaxe deitu nion hasieran, erdi brome-tan erdi serio, ez dakit. "Barne Produktu Gordina" ekonomiaz hitz egiten denean egunero erabiltzen den terminoa da,



Joxe Austin Arrieta Ugartetxea

DONOSTIA, 1949



Idazlea, itzultzailea, Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kide izana, Donostiako udaleko zinegotzi, euskaltzain ohorezko... Obra handia du literaturan, 1979an *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* argitaratu zuenetik. Gero etorri ziren *Arrotzarena*, *neurritz neurgabeak*, *Bertso-paper printzatuak*, *Manu militari*, *Terra Sigillata*... eta itzulpen-lan ikaragarriak, Marguerite Yourcenarren *Hadrianoren oroitzapenak*, William Goldingen *Eulien ugazabak*, Max Frischen *Homo Faber* edota Marcel Prousten *Denbora galduaren bila*: *Swann*-etik, adibidez. Diren eta ez diren genero guztiak landu ditu, eta gure hizkuntzaren ezagutza eta trebezia aparta erakutsiz jardun du beti, maisutasunez, oraingo *Palinpestoa* honetan bezalaxe.

nahiz eta hemen bestelako zentzu bat duen, barne historiari lotua, baina azkenean ez zitzaidan titulua gustatu. Hala ere, egia zen eta da: nire “barne produktu gordina” azaltzen du liburuak –eta gordinki, uste dut–. Dena den, azkenean, egokiagoa iruditu zitzaidan palinpestoarena.

Hamaika urtez idatzitakoa da liburua, 2011 eta 2022 artean egina.

Jubilatu nintzenean, 2011n, proiektu bat hartu nuen gogotan, [Marcel] Proust itzultzen jarraitzekoa. Zenbait argitaletxeri asmoa azaldu, baina ez zitzaien interesatu eta, orduan, lehenetik bilduak eta idatziak nituen hainbat testu zahar hartu eta neure “barne produktu gordin” hauxe lantzea pentsatu nuen. Eta, horrela, behin, zuhaitz baten pean nengoela, Budari gertatu omen zitzaion bezala –niri maila askoz apalagoan, jakina–, iluminazioa etorri zitzaidan: “Zergatik ez dut kontatuko, neure bizitzaren bukaera aldera honetan, gure familiaren historia? Edo atal batzuk, behintzat?”.

Gedächtnis errebisoreak – oroimenak, alegia, alemanez–, bultzatuta ere bai, inoiz, kontatzen duzunez.

Topoko pasadizoaz ari zara, nik Oretara joan nahi eta bertako Gedächtnis edo errebisoreak Oretetan jaitea eragozten didanean, lana bukatu ez dudalako, eta Hendaia-raino joan-etorria eginarazten didanean... Oroime-nak bultzarazi nau, batzuetan gogara eta beste batzuetan desgogara, hainbat gauza berbizitzera. Oroitza batzuk ahaztu egiten ditugu, batez ere pasadizo gogorrek edo mingarriak direnean. Gure inkontzientek horiek ezabatzerat jotzen du, eta idazlearen lana da, aldiz, oroitzapen horiei begietara begiratzea.

Gerrak markatua dator zuen familia. Hainbat pasadizo lazgarri ageri dira zure lan honetan. Bitxia da nire jatorrizko familiaren matematika: lau gehi lau berdin zazpi. Azalpen erraza du, ordea, bitxitasu-

nak: aita eta ama, biak, alargunak ziren, hiruna seme-alabaren guraso, eta elkarrekin ezkontuta ni ekarri ninduten. Beraz, aitak lau, amak lau, baina guztira zazpi... Nahiz eta hori ere ez den zehatza: aitak beste bi seme izan baitzituen bere lehen emaztearekin, biak oso umetan hilak, ez gerran bertan baina bai gerraren ondorioz, gaixorik. “Pasadizo lazgarriak” esan duzu, eta bai, makina bat bai!

Gerra, frontea, ebakuazioa, gerrako haurrak...

Gure belaunaldian gerrari eta gerra ondoari buruz, ezjakintasun handia genuen. Eman diogu buelta, neurri handi batean, bederen, jende askoren ikerlanari esker. Isiltasunaren legea baitzen nagusi gerra galdu zutenen etxeetan. Gurean, zorionez, hainbestetarikorik ez. Oso hiztuna zen gure aita, eta gerrako kontuak-eta maiz aipatzen zituen. Horren testigantza jasoa dago nire idazkietan, batez ere harako *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* hartan. Ama, berriz, isilagoa zen, zuhurragoa-edo, baina bere bizitzaren azken urteetan hainbat eta hainbat informazio eman zidan. Gorpildun-aulkian paseatzera ateratzen nuen, eta hainbat kontu kontatu zizkidan gerra-garaiaz eta familiaz. A zer belaunaldia gure gurasoena, zelako indarra zeukaten hainbeste sufrituta ere bizitzari aurre egiteko. Miresgarriak, erabat!



**Hainbeste heriotza,
hainbeste tortura,
hainbeste kartzelaldi...
‘Irabazi bagenu, sikiera!’
aita zenak esaten zuena
errepikatzeko gogoa
sentitzen dut nik**

**Isiltasun-lege hori
dela-eta, liburuan
Saturrarani
buruz diozuna
adierazgarri izan
daiteke: emakume
kartzela izana;
zu apaizgai,
seminario zela
ezagutu zenuen;
memoria-toki da
gaur egun...**

Esan dut, nire familian ez zegoen gerrari buruz hitz egiteko hainbestetarikoko taburik, baina eskolan, eta kalean oro har, bai. Saturraranen ikasten izan ginen garaian, guk ez genekien hura zer izana zen. Tabu erabatekoa! Irakasle izan ginen apaizek inoiz ez ziguten esan gure ikastetxe hura emakume kartzela izana zela. Etxean jakin nuen, 18 urte-edo nituela.



Saturrararen euskaltzaletu zinen...

Abuztuaren 15eko bazkalondoa-n ageri da eskaintza: "Gure nazio hizkuntza gutxietsia handiesten irakatsi zidaten lau maisu apartoi: aita, ama, Anton Garro eta Juan Mari Lekuonari". Aita eta ama, zer esanik ez. Garro eta Lekuona, berriz, irakasle izan nituen. Lekuona, Saturraranen eta Donostian. Garro, Donostian. Hau zen matematikaria, musikaria eta euskararekin enamoratua. Hura, Lekuona, berriz, idazle eta poeta handia.

Hortxe kontatzen duzu anekdota...

Bai, Pablo Areso eta Juan Mari Lekuonarena. Gizon interesgarria hura ere, Areso, antropologo eta arkeologoa, baina ez bereziki euskaltzalea. Kontua da egun batean Aresok mendira eraman gintuela mutil koskor estudianteko, eta ez ginela behar orduan itzuli seminarioa, eta galdu genuela Juan Mariren euskarazko eskola. Eta Lekuonak kargu hartu Aresori, eta hau bere arrazoiak ematen hasi, azimuta bilatzen, argazkiak egiten, rappeleko soken korapiloak egiten ikasten-eta entretenitu ginela, eta, orduan, Juan Mariren erantzuna, zehatza, hitzez hitz: "*¡Sí, todo es más importante que la lengua de este país!*" (Dena ere herri honetako hizkuntza baino inportanteagoa da).

Lekuona euskara irakasle, baina liburuan zehar nahi bestetan ponderatzen duzu amaren euskara, eta hari ikasiak: "Dena jakitun ustezko ezer ezjakinak", esaterako.

Interes, arreta eta grinarekin segitu nion haren euskarari. Amak mutrikueraz hitz egiten zigun, ez bere jatorrizko markineraz, baina, Mutrikutik Donostiara bizitzera etorrita –arteana ni urte eta erdiko haurra nintzela–, erdara nagusitu zen berehala gure etxean. Ni neu euskaraz hitz egiteko gauza ez nintzela geratu nintzen –ulertu bai, baina hitz egin ez–, harik eta seminarioa joan arte. Hantxe hasi nintzen euskara berreskuratzen. Baina etxean, anai-arrebak gaztelaniaz, ama gurekin aspertuta, gaztelaniaz hura ere. Aitak, lehorreratzen zenean –Ternuan eta Gran Solen ibiltzen zen arrantzana–, gu erdaraz sumatu eta orduantxe jaulki ohi zigun bere esaldi bibliko hura: "Non gagoz? Espainian, ala?".

Familia, Saturrararen, euskara... militantzia politikoa etorri zen hurrena.

Beti izan naiz abertzalea, eta euskaltzalea ere bai. Hori seguru. Esate baterako, Eduardo Moreno Bergaretxeren [Pertur] oso laguna nintzen estudiantegaraian. Euskarazko eskolak ere eman

nizkien Eduardori –gero, gure artean, Edorta izan zen–, eta Gorka Knörrri. Hortxe ibili nintzen pixka bat saltsan, hura eklosioa izan zelako. Francoren heriotzaz geroko garaiaz ari naiz. Eta milenarista izan gabe ere, denok pentsatzen genuen autodeterminazio eskubidea aitortuko zigutela, hainbeste urtetako erresistentziak horretarako behintzat balioko zuela. EIA inguruan ibili nintzen, baina 1977ko mitin batean, Donostiako Karmelo Balda frontoian nintzela –hauteskundeetan parte hartu ez hartu zen eztabaida–, handik irten eta HBra jo nuen. Hantxe ziren [Iñaki] Esnaola eta beste hainbat pertsona, nire bidean oso inportante izan direnak.

Hurrena, zeuk esan behar izan zenion Esnaolari HBtik kanpo zegoela. Zeuk joan behar izan zenuen haren etxera Mahai Nazionalaren erabakiaren berri ematera.

Utz dezagun hori suspentsean, irakurlearentzat.

Morlanseko heriotzak, Gregorio Ordoñezena... min handiz kontatu dituzu.

Episodio hunkigarriak dira, eta mingarriak. Liburuan daude, bertan irakurtzekoak dira, ez hemen harrotzekoak. Badut lagun bat, asko estimatzen dudana, gehiegi biluztu naizela esan didana. Ez dakit. Niri, barruak, idazten ari nintzen momentu jakin horietan horixe idazteko agintzen zidan, eta halaxe egin nuen. Hargatik azaltzen dira liburuan nire mamuak, nahiko gordinik azaldu ere. Barne produktu gordina, ez alferrik! Eta Morlansen gertatua-eta, urteetan eta urteetan izan dut barruan gordeta, eta paperean jarri dudanean, guztiz askatu gabe ere, zer edo zer baretu naiz, behinik behin.

Idazten ari zinela, bazenekien argitaratuko zenuela, ala zeure buruarantz ari zinen, beste gabe?

Hasieran, ez nekien. Nik "Noizbehinkaria" idazten jarduten nuen, biltegi moduko bat, honetaz eta hartaz idazten nituenak jasotzeko. Baina ez ziren publikatzeko asmokoak. Gero, liburua egitea erabaki nuenean gure belaunaldiaren, eta aurrekoaren, historia kontatzeko, kontziente nintzen argitaratzeko ari nintzela, editoreek baimena emanaz gero, noski. Eta batek baino gehiagok argi eta garbi ezetz esan zidaten, ez zutela argitaratuko, Maiatzeko Luzienek



[Etxezarreta] eta Emiliok [Lopez Adan] baietz, nire lana argitaratu beharra zegoela esan zuten arte.

Zenbat buru jarri dituzu hizketan zure lan honetan? Ez zara zeu bakarrik ari...

Nire mania betikoa da hori. Aspaldi hasi nintzen horretan, *Manu militari* hartan-edo. Nolabait, ezin etsi ni-ka. Nik, Joxe Austin Arrieta Ugartetxeak, ni-ka ezin hitz egin, historiak besteren ahotik ere ezin kontatu. Fikzioa miresten dut, baina ni ez naiz horretarako kapaz izan sekula. Ezagutu ditudan pertsonak, bizi izan ditudan gertakariak-eta kontatzen ditut, baina ni-ka hitz egitea ez zait nahikoa iruditzen, nonbait, autokontrastea egin behar izaten dut, eta borroka. Nolanahi ere, uste dut bizitza psikikoa denontzat ere borroka dela, gure alde batzuk beste batzuen kontra talkan ari direla etengabe. Ez dakigu zer garen ere.

Zurekin batera, Ander Elizalde eta Kepa Arrastiri ere ahotsaren jabe dira zure liburuan.

"Ni" partzial batzuk jartzea pentsatu nuen, antzerki-obra bat balitz bezala, kontakizunak funtziona zezakeelakoan, eta halaxe egin nuen. Lehen ere egina naiz gauza bera, liburu guztietan, nik uste, *Labur Aroz-en*, *Estalien Gradora-n*, *Terra Sigillata-n*... Oraingoan, "ni" partzialen kopurua murriztu egin dut pixka bat, Ander Elizalde eta Kepa Arrastiri

dira gehien erabili ditudanak –biak ere ni dira–, bata da jendaurrean agertzen dena, Ander Elizalde, eta Kepa da, berriz, barnekoia, inseguruagoa, angustiatuagoa. Lehena da kanpo-ederra, bigarrena da langile amorratua. Liburuan, askotan, elkarren kontra jartzen ditut. Gero, beste bi pibote ere asmatu ditut, Amaia –adimenaren edo arrazoimenaren agergarri, eta beste muturrean, Ekaitz, gure senaren adierazle izan daitekeena. Ni dira laurak ere, mus partida batean bezala ari direnak, bata bestearekin hitza emanez, hitza kenduz.

“”

Perturren oso laguna nintzen estudiante garaian. Euskarazko eskolak ere eman nizkien Eduardori eta Gorka Knörri

Ez diozu irakurleari lan erraza jarri...

Ai! Horixe esan zidan gure semeak, gustura irakurri zuela, baina historiak. Amaia eta Ekaitz eta Ander eta Kepa elkarrekin sesioan hasten zirenean, salto egiten zuela, ez zituela tarte horiek irakurtzen eta, zuzenean, historiak irakurtzera jotzen zuela. "Ondo egin duk!", esan nion.

Adinean aurrera denok ere, hainbat heriotza dabil hegan liburuan, gure mundualdia bukatzera doalako kezka... Oso presente da liburuan.

Memoria-ariketa egin dut, ahal izan dudana zorrotzeta eta zintzoena. Gure mundualdiaren bukaera dela-eta, liburua Donostian aurkeztu genuenean hortik jo zuen Iratxe Retolazak, esanez nire lan honen batzuetan testamentu itxura hartzen duela, "hilurren dagoenaren mezua" dela.

Baliteke hala izatea. Adina ere badut, 75 urte, eta egia da azkeneko urteotan jende ezagun asko hil dela gure inguruan. Oraindik orain, liburua artean inprentan zela, bertan ageri den beste lagun handi bat, esate baterako, Patri Urkizu. Garaia iristen ari zaigu. Aitak ere kontatzen zuen hori.

Zer, alegia?

Bartzelonan, Kristobal Kolonen monumentuaren inguruko moila-zabalgunean, lagunak metrailaz hilda, bera bizirik. "Irabazi bagenu, sikiera!", esan ohi zuen gure aitak. Eta nik, pentsatzen nuen: "Bai, ahaleginak egin zenituzten, baina galdu zenuten". Eta, orain, belaunaldi bat geroago, gauza bera esateko moduan ote gauden-edo. "Irabazi bagenu, sikiera!". Aitaren hitzak errepikatzen ari naizela uste dut, azken batean, hitzez hitz eta batere aldatu gabe. Baina ez. Oker asko egin ditugu, hankasartze handiak. Baina oraindik partida ez da amaitu.

Zer esan nahi duzu, zer ez da amaitu?

Larri dauka etorkizuna Euskal Herriak, askatasun berehalakoaren ametsak suntsitu zaizkigu, hizkuntzaren egoera beti bezain agonikoa edo inoiz baino agonikoa da, baina oraindik ez da partida amaitu. Gutxienez, jakinaren gainean gaude, lurrebasok elkarriketa batean esan zuen bezala, "Irlanda 15 kilometro-ra dugula, maldan behera, eta Islandia 85era, maldan gora". Nik neuk jadanik ez dut indarrik, baina eskubiderik ere ez nire herikideen indarra gutxiesteko. Agian salbatuko gara. "Agian", Iparraldeko zentzuan esanda, baldinbaitere.

Partida ez da amaitu, elkarriketa bai... Utzidazu Pertur gogora ekartzen. Hunkiduraz hitz egiten duzu zeure lagun "Edorta"-ri buruz.

Bai. Azkena elkar ikusi genuenean, Donibane Lohizunen izan zen, oso momentu emotiboa izan zen. Ez genuen une hartan politikaz hitz egin, baina banekien ordurako hark zer pentsatzen zuen, *Otxagabia* ponentzia hura-eta, adibidez: beste fase bat zetorrela Espainiako Estatura, fase demokratikoa, eta borroka armatuak ez zuela zentzurik eta utzi beharra zegoela. Jakina, ezker abertzale nagusiak gaitzetsi egin zuen, gaitzetsi genuen, haren iritzia. Orain, berriz, hainbeste sufrimendu ikusi, hainbeste heriotza, hainbeste tortura, hainbeste kartzelaldi... "Irabazi bagenu, sikiera!", aita zenak esaten zuena errepikatzeko gogo sentitzen dut nik. ●



Iritziak

Giza adimena

Stanfordeko Unibertsitateak dohai-nik eskaintzen duen *Storm* deituri-ko erreminta ezagutu berri dut. Adimen artifiziala erabilia, edozein gairen inguruan artikulua akademikoak sortzeko diseinatutako ikerketa tresna da. Fidagarriak eta baimenduak diren hamaika iturri erabiltzeko gai omen da eta, eskatuz gero, hamar orriko (edo gehiagoko) artikulua bat izan dezakezu bueltan. Adimen artifizialarekin probak eginda, oraindik ere akatsak izateko aukera dezente daudela jakina da; baina etorkizun hurbilean iraultza ekarriko duela ere inork gutxi ukatuko du.

Aski ezaguna den moduan, hiru dira unibertsitateari esleitu ohi zaizkion lan ildoak: irakaskuntza, ikerketa eta gizarte-egintza transferentzia. Hala ere, eta beste bi alorre pixkanaka arreta jarri nahi bazaie ere, ikerketa da ranking nagusietan bikaintasunaren postuak igotzeko giltzarria. Noski, adimen artifiziala espazio gehiago hartzen ari den neurrian, ranking horiek egiteko erabilitako metodologiak ere gainbegiratu beharko direla pentsatzen dut. Izan ere, artikulua egiterako orduan ez ezik, aldizkari batzuetatik artikulua bat baloratu ostean jasotako oharra ere, hainbatean adimen artifizialarekin egindakoak diren susmoa izan dut. Nork jakin, agian, momenturen batean adimen artifiziala bere burua zuzentzen ariko da.

Trantsizio lasaian baino, zirimola baten modura sartu zaigu sorginkeria dirudiena. Eta iritsiera horrek ziurga-

Jendarte kritiko eta jantzia nahi badugu, jakin-mina eta hausnarketa sustatzeko tresnak beharko ditugu, eta adimen artifiziala ez dut uste horretarako diseinatu dutenik

betasunez betetzen du egoera. Errora eraman gaitzaketan galderek begirada zuzentzen lagun dezaketela uste dut. Zer da unibertsitateetik espero duguna? Nola uztartu unibertsitateko erroak diren hiru lan ildoak modu egokian? Munduko Unibertsitateen 2024. urteko rankingeko datuen arabera, unibertsitatean sortzen doan ezagutzak gizartera izandako transferentzia beherago dago, ikerketako datuekin alderatuta. Nola-bait, ikertzen denak isla izan beharko luke errealtatean, eta horrekin omen gabiltza eskasean, hain zuzen ere. Kantitatean jarri da foku handia: artikulua kopuruan, zita kopuruan, aldizkariaren ospean... Inpaktua hori dela esan digute. Hausnartzen dena zabaltzea garrantzitsua bada ere, agian inpaktua deritzon



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

hori, edo horren zati bat, artifiziala da, adimen mota bat bezala. Agian, inguruan gertatzen dena, errealtatera, gehiago hurbiltzea dagokigu, adimen humanoa indartzea, alegia.

Lan ildoen triangelua lotzeko, ikerketa eta transferentziarekin batera, irakaskuntza daukagu. Rankingetan ia ahazturik dagoena. Irakasleen artean eragina izan du, noski; gehiago zentratu gara ikerketan, hezkuntza berrikuntza-ko metodologietan baino. Izan ere, postu finkoetan sartzeko eskakizun minimoak badaude ikerketan, baina ezagutza pedagogiko zehatzik ez da eskatzen.

Adimen artifizialaren gaiari lotuta, *New York Times*-eko podcast batean jakitera eman denez, unibertsitateko ikasleen gehiengoari omen da ikerlanetarako erabiltzen. Gurean zer gertatzen den zehazki ez badakigu ere, errealtate hori gertatzen ari den ebidentzia geroz eta gehiago ditugu. Horrek, nahitaez, irakaskuntza metodologiak gainbegiratzea ekarriko du, baita ebaluazio sistemak ere. Jendarte kritiko eta jantzia nahi badugu, jakin-mina eta hausnarketa sustatzeko tresnak beharko ditugu, eta adimen artifiziala ez dut uste horretarako diseinatu dutenik, oraingoz behintzat. Baieztapekin baino zalantza gehiago ditut gai honen inguruan, eta hitzok idazteko lankide eta ikasleekin hamaika elkarrizketa izan ditut, patxadaz. Eta hori da argi dudana gauza bakarra, gogoetak denbora behar duela, eta galderek zabalduko dizkigutela bide berriak. ●

Haurren aldeko ekosistema



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



MAIDER LETURIAGA

Haurrak begiratzeko gure paradigma ez da erabat aldatu, baina aldaketak-edo egiten ari gara, egia da, beste kontzientzia maila batekin, aferak duen garrantziagatik-eta. Bazen garaia. Kontua da, baina, haurren bizitza gure esku dagoela, eta behar duten bizimoduan aldaketak egiteak helduok interpelatu egiten gaituela, beraiekiko dugun harremana heldukeria eta heldu-zentrizmo nabarmen baina naturalizatuak gidatzen duelako, edo gauza bera dena, boterekeriak.

Gure botereari errenuntzia egitea eskatzen du, eta denok dakigu zein zaila egiten den pribilegioari uko egitea. Haurrak kontuan hartzea litzateke bizitza beren beharren arabera antolatzea ere. Baina beren beharrak gehiago kontuan hartzeak dakar guk geurearen arabera bakarrik funtzionatzaren jarraitu ezin izatea, eta hori kostatzen da.

Haurrek boterea hartuko badute, guk gehiegi dugun horretatik beharko dute egin, guri kenduta, alegia, harreman asimetriko guztiak oinarritzen baitira botere banaketa desorekatuan. Gutxiegi duenak gehiegi duenari kentzeak bakarrik ekar dezake berdintasuna.

Baina ez dezagun ikus lehiaren gisan, ez baikaude elkarren kontra, espezie berekoak gara, eta benetako beharrak,

beraz, antzekoak ditugu. Haurrak kontuan izatea eta gure gizartean benetan integratzea denontzat da onuragarria eta beharrezkoa. Maria Montessori-k zioen bezala, "gizateriarentzat laguntza eta salbazio esperantza-izpirik egotekotan, haurrarendik baino ezin da horrelakorik etorri, haurra baita pertsonaren eraikitzailea".

Teoriatik praktikaren zehaztasunera igarota, badira zenbait ardatz norabidea erakuts diezaguketenak. Hasteko, haurrek denbora libre behar dute, baina benetan *librea*, hau da, ez eskolaz kanpoko jarduera gidatuetan igarotzekoa. Haurrek denbora "gal" ez dezaten inskribatzen dituzte gurasoek halakoetan, baina galtzekoa den denbora besterik ez da librea, hor ateratzen baitira benetan garena eta gustatzen zaiguna.

Gainera, eta horretarako, txikiagoa izan beharko litzateke umek eskolan pasatzen duten denbora-tartea, erakusten zaien eta (benetan) ikasten duten eduki mordoa askoz denbora gutxiagoan ikas daitekeelako, frogatuta dagoenez. Aspertu egiten dira -nola ez?-, eta asperdura, badakigu, ez da ikasketarekin bateragarria.

Jolasaren garrantzia ez da jada auzitan jartzen, baina askotan gehiegizko jostailuekin identifikatzen dugu, edo

haur parkeetan egin dezaketen horrekin, eta kontuz, horiek ez baitute benetako jolasarekin zerikusi handirik. Hirian, haurren jolaserako espaziorik egokiena hiria bera da, espazio publikoa, nahiz eta horretarako "jostagarri" bilakatu beharko genukeen hiria, autorik gabe, etab.

Bai, haurrak etxetik kanpo egon behar dira, baina helduon kontrolpetik at, horrek dakarren askatasuna gozatzeko, baina baita norbere jokabidearen ardura erdiesteko ere, horrela baino ezin baita benetan bizitzen ikasi.

Horrek sortzen digun beldurraren aurrean esan liteke haurrak kalean (askotan bakarrik ere) ibiltzea bera izan daitekeela segurtasunaren aldeko neurri bat, komunitatea aktibatu egiten delako, inguruko haur horienganako heldu guztion babesa eta interesa piztuta.

Azkenik, haurrak aditu beharra dago, guk ez ezik, baita autoritateek ere. Eta ez keinu erromantiko baten gisan, baizik eta benetan beren iritzia- ren beharra dugula sentitzen dugulako. Haurren neurriari jaitsi behar dugu, umiltasunez, beren ikuspuntua oso lagungarria izango zaigulako erabaki zuzenak eta justuak hartzeko unean. Umeak pozik bizi diren bizitza bat denontzat delako hobea! ●

Trantsizio inkestak



MIKEL OTERO
DIPUTATUA

Nahiz eta jakina izan inkestak ez direla errealitatearen isla zehatza, interesgarria da bistadizo bat ematea, beti eskaintzen baitigute gai zehatzekiko tenperatura sozialaren arrastoren bat. Are garrantzitsuagoak dira, gai zehatzetan sartuegiak edo katramilatuak egoteagatik, perspektiba galtzeko arriskuan gaudenean. Horregatik, eskertzen dut EITBren azken inkestak trantsizio ekologikoari buruzko atal berezitu bat izatea Hego Euskal Herri mailan. Bakoi-tzak bere azpimarrak izango baditu ere, utzidazue nire arreta gehien piztu duten datuak erreparatzeko.

Berri onekin hasiko naiz: pozgarria da jakitea gurean jende gehiago dagoela hiriguneetako emisio gutxiko eremuen alde, kontra baino. Gehiago direla koteen espazioaren kaltetan oinezkoen guneak handitu behar direla uste dutenak. Edo askoz gehiago direla bidegorri sarea handitu behar direla uste dutenak. Horrek iradokitzen du trantsizio politikak uste genuena baino onarpen zabalagoa izan dezaketela. Beraz, ausartak izateko unea iritsi da.

Bestalde, badira positiboak diren baina erpin kontraesankorrak dituzten datuak. Inkestari erantzuten dion ia %80k esan du autosufizientzia energetikoa bultzatu behar dela. Sekulako albistea da hori. Kontrara, alboan zentral fotovoltaiko

edo eoliko bat edukitzeko aldekotasuna %67 eta %53ra jaisten da, hurrenez hurren (deigarria da Nafarroan, eoliko askoko lurraldean, aldekotasuna ia %60ra iristen dela). Kontuan hartuta desazkunde energetiko handia izanda ere (adibidez %50ekoa), desio den autosufizientzia lortzeko megawatt berriztagarri nahikotxo instalatu beharko liratekeela (kanpoko gasa etxean erretzea ez baita autosufizientzia izatea), bietako bat: edo ez da nahikoa argitu autosufizientzia lortzeak zer suposatzen duen, edo, bai, argitu da, baina hainbatek aldemeneko herriaren edo herrialdearen kontura lortu nahi du autosufizientzia hori.

Badakit politagoa dela autosufizientziaren desioaz hitz egitea, kilo eta megawattez hitz egitea baino. Elektrizitatea erabiltzerakoan, ordea, eskatzen ditugun megawattak eta sortzen direnak bat ez badatoz, *kaput*.

Azkenik, berri txarrena: nahiz eta azken aurreko inkestan jendeak arazo ekologikoak epe ertaineko hiru arazo larrienen artean kokatu, oraingoan inkestatuen %2,1ek soilik adierazi du ingurumenarena dela konpondu beharreko arazo nagusia. Esan beharrik ez dago epe ertainean ingurumena/ekologia/klima arazo larriena bihurtu ez dadin, gaur lehentasunez heldu beharreko kontua dela. ●

Gazaren aldeko martxa



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Ekainaren 12an munduko bazter guztietatik –Euskal Herritik ere– heldutako ehunka pertsona batuko dira Egiptoko El Arish hirian, hortik Rafahraino abiatzeko, Gazaren aldeko martxa globalean. Israel palestinar herriaren aurka egiten ari den genozidioa salatuko dute, baita korridore humanitario bat ireki dadin exijituko ere. Tamalez, nahi bai, baina batzuek ezin izango dugu parte hartu. Hala ere, hemendik gure babesa bidaliko diegu hemen antolatu diren martxatan parte hartuz edo beren protesta-aren oihartzuna lau haizetara zabalduz.

Mobilizazio horiek gure kaleetan gero eta ugariagoak diren Palestina-

ren aldeko ekitaldiei gehituko zaizkie, herritarrok erabaki baitugu ezin dugula besoak gurutzaturik gelditu gure gobernu, administrazio eta enpresa askoren kolaborazionismo edota isiltasun konplizearen aurrean. Horregatik, zenbaitetan irudien krueltasunak eragiten digun etsipenak bihotza uzurtzen badigu ere, eta ezer mugiarazten ez dugula sentitu arren, gure amorrua eta haserrea plazaratzen jarraitu behar dugu, eta abestiak dioenez, *“Hik bultza gogor hortikan ta bultza nik hemendikan. Ikusiko den nola-nola laister eroriko dan!”*. Herriak soilik egingo du. ●

Euskaraldia eta merkatua



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Aurten, berriz ere, Euskaraldia izan dugu. Bi astez, gure hizkuntza-ohiturei erreparatu diegu, geure bu-ruari galdetuta zenbat eta nola egiten dugun euskaraz. Baina ariketa horretatik harago, galdera handiago bat ere pizten da: zeren arabera da hizkuntza baten biziraupena? Nahikoa al da hiztun aktiboak izatea, edo badaude bestelako baldintzak ere jokoan?

Gaur egun, gure ekonomia kanpora begira dago: esportazioan oinarritua eta atzerriko kapitalari erakargarri egiteko diseinaturia. Eredu horrek bertako behar sozialekin loturarik gabeko zirkuituak sortzen ditu. Ondorioz, salbuespenak salbuespen, euskararen ezagutza ez da beharrezkoa, ez enpresentzat, ezta lanera etortzen diren langileentzat ere. Gaztelaniaren ezagutza bermatuta dago estatu hizkuntza hegemonikoa delako, baina euskarak ez du lekurik sistema horretan.

Turismoan eta zerbitzuetan oinarritutako ekonomiak fenomeno hori areagotzen du, merkatu horietan, ondasunak hizkuntza bidez eskaintzen baitira. Esaterako, industriarekin alderatuta,

Hizkuntzak hirugarren sektorean aktibo ekonomiko gisara duen pisua nabarmena da eta horrek hizkuntza hautua errentagarritasunaren logikaren menara azpiratzen du

hizkuntzak hirugarren sektorean aktibo ekonomiko gisara duen pisua nabarmena da eta horrek hizkuntza hautua errentagarritasunaren logikaren menara azpiratzen du, eta hizkuntza gutxituak gastu baztergarri gisara aurkezten ditu. Hizkuntza, horrela, merkatuaren logikan kokatzen da, zentzu komun neoliberalaren barruan, non indibidualismoa ezartzen den komunitatea deseraikita.

Beraz, zerikusirik ez daukatela iruditua ere, hizkuntzak egitura sozioekonomikoarekin harreman handia du, eta horrexegatik, hizkuntza-ohiturez gain, ekonomia eta antolaketa soziala herriaren zerbitzura jarri behar dira. Hori lortzeko, ezinbestekoa da ekoizpen-eredua berreraikitzea: tokian tokiko beharrei erantzuten dien jarduera ekonomikoa sustatzea, langileak eta komunitatea ardatz dituen, eta ez kanpoko errentagarritasun-irizpide hutsei lotutakoa. Eta horrekin batera, lan egonkorra, etxebizitza eskuragarria eta etorkizuna. Bizitzeko, hizkuntza batek herri bat behar baitu, burujabetza ekonomikoa eta soziala dituen herri bat.

Hizkuntza ez da bakarrik hitz egiteko tresna, ezta Kultura Sailaren kontu hutsa ere, baizik eta komunitatea lotzen duen ehundura. Eta ehundura hori nola osatzen den, ez da beti norbanakoen borondatearen mende. Herri nahiz hizkuntza bizi batek egitura ekonomiko eta sozial egokiak behar ditu. Ezin da fokua erabileran jarri, erabilerarako egiturazko baldintzak kontuan izan gabe. Hori da gaurko erronka. ●

Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!



Nafarroa, lurralde ekologikoa 2025

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak





Gobierno de Navarra



UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural




cpaen.org
navarraecologica.org

EKAINAK
27-28-29

ARBERATZE
-ZILHEKOA

EHZ★
🌿

LURRAREN
HERRITMOA





ZIBURUKO VI. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskal sorkuntza patxadaz aurkezten dizun plaza

Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragan da ekainaren 7an, 40 bat argitaletxe eta diskoetxe eta milaz gora bisitari elkarturik herriko plazan. *Euskaraz bagara* lelopean iragandako seigarren edizio horren balorapen baikorra egin dute Baltsan eta ARGIA antolatzaileek: euskara hutsezko plaza osatu dute eta beste behin, kopuru handian erantzun diote proposamenari, bisitariek eta sortzaileek.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  SABINA HOURCADE / ARGIA CC BY-SA

Giro ederrean iragan da aurten-goan ere Ziburuko liburu eta disko azoka, eta bata zein besteari galdetuta argi gelditzen da hitzordu horren berezitasuna: jendearekin patxadaz solastatzeko posibilitatea ematen dizu. Argitaletxeok eta sortzaileek estimatzen dute irakurlearekin edo entzulearekin trukatzeko aukera, eta zer erranik ez bisitariet dagokienez, 33 argitaletxe, 10 diskoetxe edo musika talde eta dozenaka sortzailerekin tarte bat hartzeko aukera izatea xantza bat delako. Denak ez dira gelditzen galdeza ala berriketan, bada mahaian itzulia isilean egiten duenik; argitaletxeok edo sortzaileak ez dituzte parean arrantzan, baina nahi izanez gero, hor dauzkate mintzatzeko prest. "Hazten joan den azoka da, baina lehen urteko

arma mantendu du, goxotasuna, lasaitasuna, zaintza", dio Erein argitaletxeko Idoia Gonzalezek. 1.100 lagun bildu ditu aurtengo edizioak eta pozik agertu dira antolatzaile diren Baltsan elkarteok eta ARGIAkoak.

Aurelia Arkotxa idazle, ikerle eta euskaltzain osoa omendu dute aurtengoa, eta bere esaldi bat oroitarazirik borobil zuen Arkotxaren ekarpena Baltsaneko Maialen Tapiak: "Hizkuntza herri baten memoria bizia da, haren zaintza gizatasunaren zatia gordetzea da". Saria "biziki estimatzen" zuela erranik, euskalgintzari bideratu zituen bere eskerrak: "Baltsan eta ARGIA, euskalgintzaren eta nolabait Euskal Herriko populueren sinbolo dira. Nire lanak aipatu dituzu, baina nik nahi ditut Baltsanek, zuek denek eta beste hainbestek isilean, xi-

naurri lanean egindakoak aipatu. Urtez urte eta urte osoan egiten den lan hori miresgarria da". Kezkaz ere begiratzen baitio euskararen egoerari: estatusik gabeko hizkuntza Iparraldean, "bertikalki funtzionatzen duen Hexagonoaren eta horizontalki funtzionatzen duen Euskal Herriaren" arteko talkak, kulturaren arloan euskararekiko zenbaitzuk duten mespretxua, "mundu paralelo batetik etorriko balira bezala" gurean kokatzen diren estatus altuko kanpotarren interes-eza eta dekalajea... Hitz hartzea euskalgintza eskertuz hasi eta berdindin bukatu zuen: "Nire gurasoek ez zuten sekulan imajinatuko euskararen galtzerik, beraz, gora euskara, gora Baltsan eta gora Euskal Herria".

Arkotxaren gogoetan luzatzeko parada izan zuten bertan ziren berrogei

bat entzulek, Leire Vargas idazleak bideraturiko *Zubiburu* solasaldiari esker, ondoan zuelarik Rakel Pardo baztandar poeta gaztea. [Kronika irakurgai 28-29 orrietan]. Ondotik lekukoa Madame Birrots taldekoek hartu zuten, eta horrela iragan zen eguna, batean, liburu aurkezpen, bestean, zuzenezko kontzertu ttipi. Bertan eman zion itxiera 2023ko azaroan plazaraturiko *Erretratu bat* diskoaren itzuliari Esanezin taldeak: "Etapaitxiera oso polita izan da", Ianire Aran-zabe abeslariarentzat.

KOMIKIGILEEN EXODOA

Batetik bestera punpeka nenbilela –betiere, tarteka kafetxo bat edo zurito bat hartzeko pausa laburrak eginez azoka hegiko Bittor taberna estimatuan, bertatik ere jasotzen direlako kronika osatzeko detaileak–, *Maurizia. Biziminaren hotsa* komikiaren egileekin ukandako solasa gelditu zitzaidan iltzaturik go-

goan: Garluk marrazkilariari ez zaio bizigarria Euskal Herrian lan egitea, euskal komikigintzak ez dio bizitzeko heina diru ekartzen eta Frantziako Estatuan dabil lanean. "Nire lanaren %80 Frantziako argitaletxeetan dut. Beraiek nahi dituzten istorioak kontatzen ditut, ez nik kontatu nahiko nituzkeenak". Bere gisa beste hainbat komikigile dabilta horrela, Garluk ez da kasu isolatu bat. "Are gehiago, –gehitzen du ondoan duen Garbiñe Ubedak, *Maurizia. Biziminaren hotsa*-ren idazleak–, Frantzian izena duten marrazkilari euskaldunak badira, guk hemen ezagutzen ez ditugunak". Migrazio ekonomikoa edo exodoa deitzen zaio horri. Dohain hori lekuan berean sustatzeko nahikeriarik ez al dute erakunde publikoek? Eta oharkabean berriz hor dugu euskal kulturgileen prekaritatearen gaia. Lanarteako Amagoia Gurrutxagak ongi laburbildu zuen egoera, Ziburuko Azokaren aitzineko egunetan Euskal

Irratiek eta ARGIAk elkarlanean osaturiko mahai-inguruan: "Kapital kultural baten galeraz ari gara, eta baditugu sortzaile oso onak". Larriena, Gurrutxaga ez zela soilik komikigintzaz ari, euskal sorkuntzaren eremu osoaz ari zen.

Xabiroi dabil, nagusiki, Euskal Herriko komikigintza sostengatzen, zabaltzen, sustatzen... baina, Alberdaniako Oier Etxebeserekin ukandako solasalditik ateratakoari jarraikiz, "herri ekimenei ezin zaie dena utzi, instituzioen partetik dirulaguntzak beharrezkoak dira". Hogeit urte beteko ditu aurtan Xabiroi aldizkariak, eta ospatuko dute irailaren 29an, hain justu, 1979ko irailaren 29an argitaratu zelako Zakilixut pertsonaiaren lehen zinta.

Hitzorduen berri eman zuten goiz hondarrean, eta ondotik lekua hartu zuen Euskal Herrian Euskaraz-ek, *zazpi jauziak* dantzatzu –baita kantatuz ere!–. Erakunde sozial, kultural, ekonomiko eta politikoek euskararen alde jauziak egin



Aurelia Arkotxa izan da aurtengo omendua. Argazkian, Baltsaneko Maialen Tapiatz eta ARGIAko Olatz Kortaz inguratuta.



Madame Birrots (goiko argazkia), Esanezin, Sara Zozaya eta Ekhi Lambert egon dira aurtan oholza gainean, oren erdiko kontzertua eskaintzen.



Haurrentzako ikusgarria, urtero bezala, aurtengoan Kiribil konpainiaren eskutik.



Haurrak, Sara Zozayaren publikoaren lehen lerroan.

ditzabela eskatzeko hitzak landurik dituzte eta gerora, plazaz plaza, protestaz protesta dantzatzea eta kantatzea dute xede.

Euskararen erabilpenaz edo hobeki erran, idazterakoan egiten diren akats ohikoez kezkatutik ondutako liburua da *Iparrorratza : kalko eta huts ohikoenen saihesteko bidea*, Céline Mounolek idatzitakoa eta azokan aurkezturikoa. Huts horien zuzenketak eta azalpenak emateko gogoari tiraka idatzitakoa du. "Paradoxa bat bada: geroz eta gutiago erabiltzen dugu euskara, baina geroz eta gehiago idazten da. (...) Haatik, ez dugu denborarik ukan gogoetatzeko kalitateari buruz. Egoera diglosikoa hor da eta kalitatea jokoan da. Erreferente genituen aitatxi eta amaxiak joaten ari zaizkigu". Galdera luzatu zion entzuleriari: "Euskaraz idatzi behar da, ados. Baina, kostarik kostatzen? Frantsesez onartuko ez genuena ez dezagun onartu euskararentzat. Guk dugu maila ezarri behar, eta asmo horrekin

"Herri ekimenei ezin zaie dena utzi, instituzioen partetik dirulaguntzak beharrezkoak dira"

Oier Etxebeste

idatzi dut liburua. Euskarak galtzen baditu bere oinarrian dituen gailuak, nagusi den hizkuntzara [frantsesera] joko dugu".

Liburu eta disko aurkezpenez gain, bestelako sorkuntzei ere lekua bideratzen diete antolatzaileek, dela umorezko bakarriketa, rol jokoak, haurrentzako ikusgarria, bertsoa zein marrazkia. Maialen Berra lapurtarra aritu zen bakarriketan, berriki *stand-up* mundura eta Altxalili kabaret queerrera sartutakoa.

Tsundoku sindromea ukan zuen oinarri, hau da, liburuak erostearen eta metatzearen, baina sekula ez irakurtzearen joera. Umoretik aritu zen, baina betiere, gai serioak plazaratzeko. Bukaeran, doinu serioan eta irritxoan aurpegian zabalduriko mezua dugu adibide: "Liburua bakarrik irakurtzen dugun arren, bortxaz norbait lotzen dugu. Edo gaur bezalako besta eder bati. Beraz nire lehen galderari erantzuteko, zergatik heldu giren azokara, nire ustez horregatik heldu gira. Liburuak lotzen gaituelako. Eta ezin du zoom edo bisio batek hori ekarri. Ordezka ezina den gauza bat da. Segi dezagun azokara joaten, liburuak erosten, ahal bada irakurtzen, oroitzen sortzen eta gure arteko loturak indartzen. Horrek egiten gaituelako gizarte, liburuak gizakien artean ezarri, biziak aldatuz". Kronika xitekoko laburpen egokia iduritu zait. Beraz, horretan bego. ●



Bertsoak eta marrazkiak nahasten dituen Zirriboroka saioa, aurtengoan Asisko eta Amaia Carrere marrazkian, Haira Aizpurua Ibargarai eta Patxi Iriart bertsotan.



Aurtengo berritasuna: Rolariak egon dira bertan, rol jokoak ezagutarazten.



Maialen Berra, umorezko saioan.



Euskara hutsean bideraturiko azoka da Ziburukoa, eta 'Euskaraz bagara' lelopean iragan da aurtengo edizioa.

Bidaide eta gogaide, poesiaren ibilietan

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  SABINA HOURCADE

Bidaide eta gogaide XVII. mendeko Arnaud Oihenarteren *Atsotitzak* eta *neurtitzak* liburuan kausitu dezakezu, eta bidean kausitu eta gus-tura ondoan harturiko bidai-laguna-ri erraten zitzaion "gogaide". Aurelia Arkotxak ekarri zuen gurera, *Zubiburu* solasaldian, hain justu ere, bideaz, bidaiaz eta idazketaz, poesiaz aritu zirelako bertan Arkotxa azokaren sei-garren edizioako omendua eta Rakel Pardo baztandar poeta gaztea. Junta-tzaile lanean aritu zen Leire Vargas, bera ere idazlea, bi poesia liburu pla-zaraturikoa.

Pardok poesia bilaketarekin lotzen duelako eta Arkotxaren literaturan ere bilaketarekin errima dezakeen bidaia-ren ideia nabarmena izanda, bidaia-aren juntarte aukeratu eta hortik abiatu zuen solasaldia Vargasek: "Nondik has-ten zarete idazten, edo nahi bada, bi-daiatzen edo begiratzen?". Galderari galdera bidez erantzun zion Pardok: "Zer da bidaia?" eta segidan bere eran-tzuna: "Bada toki batetik bestera mug-itzea, baina bada ere banku batetik ese-rita egin dezakezun zerbait. (...) Bidaia zerbait baldin bada, bada mugimen-dua -barnekoa edota kanpoko-, eta mugimendua baldin badago, funtsean, bilaketa dago. Uste dut bilaketa giza-tiarra ezaugarritzen duen zerbait dela, eta izan daiteke poesiaren bitartez edo bakoitzari barnetik ateratze zaion ho-rrren bitartez". Nahiz eta bilaketa gehie-gitan hutsuneari, akaso beldurgarria eta misteriotsua izan daitekeen zuloa-ri lotu, baztandarrak uste du irekie-ra proposamen bat dela, "mugimendu proposamen bat, bizitzaren indar hori sortzen duena".

Produktibitatea eta efizientzia eko-nomikoa helburu bakar dituen sistema neoliberalaren kontrako zentzura doa hori, eta Pardoren hitzetan, horregatik da "erresistentzia forma" bat poe-sia idaztea edo irakurtzea. Pardoren ideia hori partekatzen du Arkotxak



Aurelia Arkotxa eta Rakel Pardo, Leire Vargas idazlearen galderei segika mintzatzen, *Zubiburu* solasaldian.

“ ”

*Soilik norbere etxeaz
arduratzen den
pertsonak pertzepzio
arazo nabarmen bat
du, norbere etxea
norbera gainditzen
duen testuinguru
batean delako*

Rakel Pardo

ere: "Funtsezkoa da erresistentziaren ideia hori. Mundu lasterretik nolabait apartatzea, pentsatzen uzten ez duen mundu horretatik apartatzea eta ho-rrelako hozka edo *décalage* batean iza-

tea oinarrian dugu". Zurrunbilotik eta fokupetik urrats bat atzera egite hori ezinbestekotzat du, obserbazioa ahal-bidetzen dielako, eta hori ere badelako bidaia (eta bidaia horren nolabaiteko kontakizuna, berriz, poesia). Erresis-tentziaz gain, "disidentziaren" ideia ere ekarri nahi izan zuen.

Funtsean, azokaren hastapenean ukandako omenaldian ere ideia horri tiraka egin zuen bere hitzaldia: "Ano-nimoki ibiltzea gustatzen zait, obser-batu ahal izateko. Idazteko behar duzu distantzia bat, isiltasuna; itzala behar duzu idazteko eta gaur egun ez da mo-dan den giroa, argi fokuak dira nagusi".

Bakoitza bere territoriotik ari da idazten. Biak Euskal Herrian izanik ere, bata Urdazubitik, landa eremutik, eta, bestea, giro urbanoagotik, besteak beste, bigarren etxebizitzaz josita da-goen Lapurdi kostaldeko Hendaiatik. Horrek eragiten die, nola ez: "Ingurune fisiko horrek zuzenki interpelatzen gai-tu indibiduo gisa, subjektu politiko eta gure kasuan, kultural gisa", Pardoren



Rakel Pardo baztandarra, *Egurats zabaletako izendaezinak* (Maiatz) poesia liburuaaren egilea.

“”

*Pentsatzen uzten
ez duen mundu
horretatik pixka bat
apartatzea, eta hozka
edo 'décalage' batean
izatea oinarrian dugu*

Aurelia Arkotxa

hitzetan. Argi utzi nahi du afera: "Nik uste dut soilik norbere etxeaz ardura-tzen den pertsonak pertzepzio arazo nabarmen bat duela, norbere etxea norbera gainditzen duen testuinguru batean kokatua delako, eta harreman hori konstantea da, etengabekoa". Adibide bana eman zituzten ideia hori argitzeko. Pardok, Aroztegia makroproiektu urbanistikoaren kontra borrokatzeagatik epaituriko zazpi lagunen kasua: "Berriz ere agertzen dira interes ekonomiko pertsonalizatu espekulatiboak, herri baten bizimoduaren, pentsamenduaren eta nahiaren kontra doazenak". Arkotxak bere egunerokoan eta literaturan leku handia duen itsasoa ekarri zuen hitzetara: "2014-2015 urteetan izandako tenpesta gogoan dut, bederatzi metroko uhin ikaragarri hura. Gogoan dut nola joan nintzen hurbiletik ikustera utzitako hondakinak. Obserbatzen duzu eta galdatzen duzu horrek zer eragingo duen... aski fite ohartzen zara dagoen hori estaltzen dela, aldaketa aukerak

entzun gabe; ezin entzunak dira hau-tu politiko ofizialak direlako hor". Bide beretik aipatu zituen denboran aitzina-tu ahala gure bazterretan emendatzen ikusi dituen eolikoen makroproiektuak. Hor ere berdin: interes ekonomiko per-tsonalizatu espekulatiboak nagusi.

Inguratzen dutenari erreferentzia egiteaz gain, idazterakoan erreferente dituztenei ere erreferentzia egin zieten, "zerotik sortzen dugula pentsatzea ez delako egia". XVII. mendeko Oihe-nart eta Pouvreau, baita Piarres Aintziart "bidaia handia" –ulertu, idazle handia– Arkotxak, eta Pardok Arkotxa bera. Hendaiako idazleak eskertu egin zuen solasaldia hiru emazteen artean egin izana: "Bidean konpainia masku-linoekin zabilta gehienetan, errefe-renteak anitzetan gizonezkoak dira", eta behingoan, emakumezkoak elkartu izanaren "finezia" azpimarratu zuen.

Gure bazterrak –hitz zahar galdu hori berreskuratzeko deia egin zuen Arkotxak: "Maite dut hitz zahar hori,

badira horrelako hitzak entzuten ez di-renak eta berriz konbokatu behar ditu-gunak"– umiltasunez eta, beraz, erres-petuz kontsideratzeak aldaketak ekarri ditzakeela uste du: "[Bazterrak kontuan hartuz gero] konturatzen zara ez zarela deus, baina uste dugu garela dena, gare-la erregina ala errege eta egin dezake-gula nahi duguna. Hori da izugarrizko eskandalua; ez dakigu umilak izaten, ez dakigu distantzia bizitzen".

Vargasek bukaerako laburpentxoan erran bezala, *Zubiburu* ariketak nabar-men utzi zigun idazlea kolektiboaren parte dela, eta ez dela batzuk nahiko luketen bezala gizartearen gainetik. Bakoitzak beretik –bere inguru-girotik, logelatik, barrenetik, begiradatik eta ahotsetik– argi utzi zuen hori. Beraien gogoetak entzuten segituko genuen, entzulea gustura zegoen, baina ondo-koei lekua utzi beharra zuten. Eskerrak azokaren hastapenean ginela eta egun osoa genuela bidaiaz solasean segitu ahal izateko. ●

BABESLEA:





Elkar mugituz
egingo dugu
Maiatzaren 15etik 25era



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

TICKET BAI

Espazio autogestionatuak merkantilizatzeko egitasmoa

Azken urteetan Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak Ticket Bai fakturazio sistema ezartzea exijitzen ari zaie hiri ugaritako jai batzordeetako txosnei. Horren aurrean, Euskal Herriko dozenaka festetako ordezkariak "txosnak eta herri jaiak defendatzeko" ekitaldia egin dute maiatzaren hondarrean Bilbon. Besteren artean sinadura-bilketa abiatu dute, txosnak ondare inmaterial izendatzeko.



Lan boluntarioa izanik, txosnen jarduna termino soilik ekonomikoetan neurtzeak zentzurik ez duela diote jai batzordeetako ordezkariak.

ARITZ LOIOLA / FOKU



OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Globalizazioarekin batera, gizarte-ko esparru guztien homogeneizazioarako joera du kapitalismoak. Egun, geroz eta zailtasun gehiago dute sistemaren eredu merkantilistatik eta pribatutik at jarduten duten egitasmo alternatiboek. Horien artean daude Euskal Herriko hirietako jai batzordeek antolatzen dituzten txosnak, lan boluntarioaren bidez aurrera eramanak eta irabazi asmorik gabekoak.

Soilik etorkizun ilunak irudikatzen dizkiogun gizarte honetan, bestelako mundu bat marrazten duten ekimenek hainbat oztopo gainditu behar dute. Azken urteetan, irabazi pribatuaren jainkoak bere hatzaparrak herri mugimenduetako txosnetan jarri ditu, eta hasi besterik ez dira egin horren inguruan orain arte sortu diren gatazkak.

2023ko apirilaren amaieran, lurraldeko taberna eta jatetxe gehienak biltzen dituen Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak zera eskatu zien 3.000 biztanletik gorako udalei: jaietako txosnak arautu eta salmentak kobratzeko Ticket Bai sistema erabil dezatela, taberneke egiten duten bezala. Eskaera hori justifikatzeko, tabernak dauden lekuetan egonda txosnek lehia sortzen dutela adierazi zuen patronalak.

Eta, patronalaren eskaerari men egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bizpahiru hilabete geroago, Ticket Bai ezartzeko borondatea erakutsi zuen Eider Mendoza Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak. Mendozaren arrazoibidea ere interesgarria izan zen: “Txosnek irabazi asmoekin funtzionatzen badute, fakturak kontrolatzeko sistema elektronikoa izan beharko dute”.

Txosnak instituzionalizatu eta merkantilizatzeko asmoa ez zen Gipuzkoara mugatu: iazko uztaillean Gasteizko Txosna Batzordeak (GTB) prentsaurrekoa eman zuen Arabako Foru Aldundiaren aurrean, hiriko jaiak hasteko aste gutxi falta zirela. GTBk salatu zuen hiriko txosnagunea “arriskuan” zegoela, aldundiak Ticket Bai erabiltzera derrigortu nahi zuelako. Gainera, larritzat jo zuen aldundiak “eredu herrikoi, kolektibo eta sozialen borondatezko lana enpresa pribatuekin” parekatu nahi izatea.

Azkenean, oztopoak oztopo, jaietan txosnak jartzea erabaki zuen GTBk, eta Gasteizko jaiak amaitu eta bizpahiru astera iritsi ziren mehatxuak: Ramiro González Arabako ahaldu nagusiak jakinarazi zuen aldundiak 64 enpresa edo norbanakoren aurkako espedienteak ireki zituela 2024. urtea hasi zenetik ordura arte, eta zigortuek gutxienez 20.000 euroko isuna jasoko zutela.

KONTROLERAKO TRESNA

2020an aurkeztu zuen Ticket Bai fakturazio sistema Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin batera. Lakuak, haren webgunean, fakturazio sistema hori jarduerara ekonomikoak egiten dituen pertsona edo elkarte orori aplikatuko zitzaizela aurreratu zuen. Gainera, Ticket Bai-k dituen hainbat helburu ere aipatu zituen: zergapekoei “euren betebeharrak” betetzen laguntzea eta zerga iruzurrak saihestea.

Linus Finke gasteiztarak, ordea, bestelako iritzia du. Alemanian jaio bazen ere, duela 27 urte heldu zen Euskal Herrira, eta jada 25 urte daramatza Arabako hiriburuko jaien prestakuntzan

“Txosnagunea espazio alternatibo gisa ulertzen dugu, herritik eta herriarentzako egina eta interes kapitalistarik gabekoa”

LINUS FINKE

Gasteizko Txosnetako kidea

murgilduta, lehenik txandak egiten eta orain Errekaleor Bizirik taldeko ordezkari gisa. Haren ustez, Lakuak Ticket Bai “kontrolerako tresna gisa” erabili nahi du: “Ticket Bairen bidez, Eusko Jaurlaritzak iruzurrezko jardueren susmoan izan dezake mundu guztia, eta horrek espazio alternatiboen nahiz komertzio txikien askatasuna mugatzen du”. Gainera, Finkek salatu du fakturazio sistema horren bitartez, aldundietako ogasun ikuskaritzek irabazi asmorik gabeko edozein elkarteren diru sarreretarako sarbidea izan dezaketela uneoro, zenbat diru sartzen eta ateratzen den jakitun izanik.

Finkeren arabera, txosnak ez dira enpresa bat, ezta jarrera merkantilista duen edozein erakunde ere: “Jarduerara guztia borondatezko lanaren bitartez eramaten dugu aurrera, irabazi asmorik gabe”. Horrez gain, txosnen jarduerara ez dela ekonomikoa aldarrikatu du Gasteizko Txosnetako partaideak, “politiko eta soziala” baizik: “Txosnagunea espazio alternatibo gisa ulertzen dugu, herritik eta herriarentzako egina eta interes kapitalistarik gabekoa”.

Ticket Bai ezartzeak txosnei zein bestelako espazio autogestionatuei ekarriko lizkiekeen zailtasunei dagokienaz, Finkek azpiegitura teknikoaren nahiz digitalaren erabilera azpimarratu du: “Jaietan zehar borondatezko mila txanda baino gehiago egiten dira, eta bakoitzari sistemaren funtzionamendua azaltzea ezinezkoa da”. Diru sarreraren digitalizazioa soilik ez, bestelako zenbait gestio administratibo ere egin beharko lituzkete espazio hauek: esaterako, jarduerara ekonomikoetan alta ematea –eta baja ondoren, noski– eta zerga-aitorpena egitea.



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

"Lortutako etekin ekonomikoarekin zer egiten da? Auzogintzako beste hainbat proiektu sozial eta kulturaletan inbertitu: hurrengo urteetako jaiak, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, aisialdirako zein hezkuntzarako jardunaldiak...", diote txosnak babesteko ekimeneko kideek. Argazkian, Gasteizko Ama Zuriaren jaietako kontzertu bat, pasa den urtean.

Finkeren esanetan, "ez du mugarik" instituzioek kontrolerako duten jorak: "Aspaldi galdu zuten iparra zentzu horretan, noizbait izan bazuten". Espazio nahiz jarduera guztien digitalizazioaren bidez lortuko dute kontrol hori, haren ustez, eta hori justifikatzeko erabiltzen dituzten arrazoiak "betikoak" eta "zentsugabeak" direla adierazi du Errekaleor Bizirik-eko kideak: "Segurtasuna aipatzen dute, ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako neurria dela, denok garela berdinak legearen aurrean, eta abar".

Azken urteetan instituzioek espazio alternatiboan, eta horien artean txosnen aurka abiatutako ofentsibaren arrazoiak argi du Finkek: "Irabazi asmorik gabeko elkarteek kapitalismoaren

logika merkantilistatik eta pribatutik at jarduten dute. Instituzioei ez zaie hori gustatzen eta horrekin amaitu nahi dute".

NEGOZIAZIOAK ARABAKO ALDUNDIAREKIN

2020an aurkeztu bazuten ere, Ticket Bai ezartzeko legea 2022tik aurrera aplikatzeko asmoa zuten instituzioek. Hain zuzen, urte horretan jaso zuten Gasteizko Txosnek Arabako Aldundiaren lehen abisua, Finkek azaldu duenez. Hurrengo urtean ere ohartarazpen bera jaso zuten, baina abisua eman zen unetik jaien hasierara arte hain epe laburra egonik, elkarrizketak ez ziren gehiagora iritsi.

Iaz hasi ziren zailtasunak, ordea. Arabako hiriburuko txosnetako ordezkariak bi

bilera izan zituzten urte horretan Arabako Ogasun diputatu Itziar Gonzalo de Zuazorekin -instituzio horri dagokio herrialdeko pertsona edo elkarte juridiko ororen jarduera ekonomikoak ikuskatzea-.

Jai batzordeetako kideen hitzetan, txosnetan jende ugari aritzen da txandak egiten, eta guztiei Ticket Bairen ingurukoak azaltzea ezinezkoa dela diote



PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC BY SA

Nagore Ugartek eta Iker Martinek irakurri zuten *Txosnak. Gureak, denonak* manifestua maiatzaren 31n Bilbon egindako agerraldian, dozenaka jai batzorderen izenean. Besteren artean, Txosnak.eus webgunean abiatutako sinadura bilketaren berri eman zuten.

Ondare inmateriala

"Imajinatzen al dituzu jaiak txosnarik gabe? Guk ez. Txosnak ez dira edariak zerbitzatzeko barra hutsak", adierazi zuten Nagore Ugartek eta Iker Martinek maiatzaren 31n Bilbon egindako agerraldian, bertan bildutako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako dozenaka txosna eta jai batzorderen ordezkari gisa. Irakurritako adierazpenean, azpimarratu zuten txosnak jai herrikoien "bihotza" direla, "elkartzeko eta elkar zaintzeko guneak, herriak bere nortasuna ospatzen duen lekua; tresna politiko, sozial eta kulturalak".

"Jende askoren borondatezko lanarekin" jarduten dute txosnek, jai batzorderen hitzetan: "Gure tradizioak bizirik mantentzen ditugu, kultura sustatzen dugu eta komunitatea indartzen dugu.

Txosnek partaidetza soziala bultzatzen dute eta sortzen dituzten onurekin proiektu kultural eta sozialei eusten diete. Herritik sortzen dena herrira itzultzen da". Horregatik, adierazi dute "ezinbestekoa" dela txosnak babestea, "festa soila" baino gehiago baitira. Helburuetako bat da Euskal Herriko kultur ondare inmaterial izendatuak izan daitezen lortzea, bertsoalaritza bezala, adibide bat jartzearen.

700 txosna eta 200 jai batzordek baino gehiagok egin dute bat dinamikarekin, eta herritarrak bi modutan atxiki daitezke horretara: Euskal Herriko jai guztietan egongo diren sinadura orrien bidez, eta ireki berri duten www.txosnak.eus webgunearen bitartez. "Herriz herri, jairik jai, txosnaz txosna eta kua-drillaz kuadrilla" sinadurak biltzen ari-

ko dira, eta ondoren Eusko Jaurlaritzari helaraziko dizkiote.

"Egoera ez da erraza, ikusten ari gara zailtasun handiak ditugula egiten dugun lanarekin eta sostengatzen dugun jai ereduarekin aurrera egiteko", azaldu du Martinek Naiz irratian.

Txosnak babesteko, arazoa publiko egin nahi dute, instituzioei trabak ken diezazkieten eskatzeko. "Administrazioarekin elkarlanean gaude baina arazoak ere sortzen dira, ez garelako profesionalak", dio.

Bilboko agerraldian txosna bat muntatu zuten, eta giroa berotzen aritu ziren pandero jole eta trikitilariak, Andoni Ollokiegi musikaria, Joselontxos Donostiako txaranga, eta Izar Mendiguren, Beñat Gaztelumendi eta Oihana Bartra bertsolariak. ●

“Jende askoren
borondatzeko lanarekin
jarduten dute txosnek, eta
sortzen dituzten onurekin
proiektu kultural eta sozialei
eusten diete”

LINUS FINKE

Gasteizko Txosnetako kidea

Errekalor Bizirik-eko kideak dioenez, eztabaida luzeak izan zituzten Gonzalo de Zuazo eta bere taldearekin Ticket Bairen inguruan, hori ezartzera behar nahi zituztelako.

Azkenean, aldundiak eginiko aginuari uko egitea erabaki zuten Gasteizko Txosnak osatzen duten elkarte guztiek, akordio bat adostu ondoren Arabako Ogasun ikuskaritzarekin. Finkek azaldu du bi aukeren artean eztabaidatu behar izan zutela txosnetako kideek: espazioa utzi eta horrekin batera “40 urte baino gehiagoko ibilbidea amaitu”, edo lanean jarraitu “espazio alternatibo, antikapitalista, feminista eta parte hartzaile” horretan.

Aurtengo jaietan txosnetan Ticket Bai sistema martxan jarriko dutela adostu zuten bi aldeek, baina erabaki hori hartzea “erraza” izan zela aitortu du Finkek: “Gure ideien aldeko borroka aurrera doa Ticket Bairekin eta Ticket Bai gabe. Gasteizko herri mugimenduaren parte gara, elkarren

arteak elikatzen gara, eta horrelako lege batek ez du hori aldatu behar”.

Aipatzekoa da, gainera, espazio alternatibo Ticket Bai ezartzeko agindua eman zien lehendabiziko foru aldundia izan zela Arabakoa. Hori PPK herrialdean duen influentziagatik dela uste du Finkek.

INDARRAK BATUTA AURRERA EGIN

Eusko Jaurlaritzak bultzatu nahi duen txosnen merkantilizazioaren aurrean, bide bati ekin diote Euskal Herri osoko jai batzordeetako kideek: indarrak batzeari. Horren erakusle da maiatzaren 8an Bilboko, Gasteizko eta Donostiako herri jaietako ordezkariak egin zuten agerraldia. Hain justu, agerraldi horretan iragarri zuten maiatzaren 31n “txosnak eta herri jaiak defendatzeko” ekitaldia egingo zutela Bilbon.

Hiru hiri horietako jaietako ordezkariak salatu zuten espazio publikoa erabiltzeko “geroz eta zailtasun gehiago” izaten dituztela: “Mundua pribatizatzen ari da, eta gero eta zailagoa da txosnak eta herri-jaiak antolatzea”. Egoeraren erantzuleak aipatzerako orduan, instituzioetan ezarri zuten jopuntua, euren ustez, lehentasuna irabazi asmoa duten jarduerari ematen dietelako.

Finkek azaldu du Ticket Bairen inguruan izandako eztabaidetan ondorio batera iritsi zirela: Euskal Herri osoko jai herrikoietan txosnak “ezinbestekoak” dira, eta horien ibilbidea nahiz jatorria ezagutzea garrantzitsua da txosnen gisako espazio alternatiboekin aurrera jarraitzeko. Gasteizko Txosneko kidearen arabera, ordea, espazio hauek jarduera komertzial gisa ikusteak erakusten du hainbatek ez duela “ezer ulertzen”, eta tabernei konpetentzia egiten dietela pentsatzeak “kontzeptu kapitalistetan harrapatuta” gelditzea dakarrela.



EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 aholku.eus

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

Miribillako (Bilbo) anfiteatroan eginiko ekitaldi jendetsuarekin, Txosnak. Gureak, denonak dinamikari ekin diote Euskal Herriko 700 txosna eta 200 jai batzordek baino gehiagok. Txosnek etorkizuna bermatuta izan dezaten eta “jai eredu herrikoia” mantentzeko, sinadura bilketa bat abiatu dute, txosnak Euskal Herriko kultur ondare inmaterial izendatzeko. “Txosnarik gabe ez dago jai herrikoirik, ez auzoetan, ez herrietan ezta hirietan ere”, adierazi du Finkek. ●

LGBTBIQ+

Harrotasunaren eguna Astigarraga

Ekainak 4
18:30

FAXISMOAREN AURREAN, HARROTASUNEZ AURRERA! Hitzaldia
Hizlaria: Egoitz Arbiol Albeniz (Hiruki Larroxa)
Emakumeon Etxean

Ekainak 11
17:30

BURUNTZALDEKO TRANSMARIBIBOLLO SAREAREN Aurkezpena
Emakumeon Etxean

Ekainak 18
18:30

HERRI BAT DENONTZAT: SEXU-ANIZTASUNA ASTIGARRAGAN Hitzaldi-tailerra
Hizlaria: Egoitz Arbiol Albeniz (Hiruki Larroxa)
Emakumeon Etxean

Ekainak 27
19:30

ZINEGOAK
Film-laburren emanaldia
Erribera kulturgunean

Ekainak 28
19:30

MIKRA
Zirkugaraikide ikuskizuna
Berdinki konpainiaren eskutik, genero rolen eta botere harremanen inguruko gogoeta Kontxa Etxeberria plazan

“ ”

Lokalizatuta dauden epigrafeak leku batean biltzeko ahaleginik ez da egin

Juan Martin Elexpuru

Iragan udazkenekoa dugu liburua: *Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan* (Nabarralde, 2024). Historiara jo du berriz Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoak, eta argira ekarri euskarak epigrafian egina duen bidea, utzia duen aztarna, orain artean inork egin ez bezala.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Liburuari sarrera eginez diozunez, hutsune bat betetzeko asmoz burutu duzu lan hau.

Bai. Izan ere, erromatar garaiko euskal izenen gaia lehen lerroan egon da beti, euskararen historiaren arduratu direnen artean, gutxienez behintzat. Asko idatzi da horretaz, baina orain arte, nik dakidala, ez da argitaratu esku-liburu ganorazkorik, hau da, epigrafe ia guztiak transkribatuta eta argazkiak dituenik; bila daitezkeen neurrian, jakina. Liburu honetan, berriz, orain arte batzuek eta besteek esandakoaz aparte, epigrafeen testuingurua eta izen bakoitzaren balizko esanahia aztertzen saiatu naiz.


Epigrafiak ari zara, material gogorretan egindako idazkunak aztertzen dituen zientziak, alegia. Zer jakinarazten digu epigrafiak euskaldunoi?

Antzina, pergaminoan edo papiroan idazten zen gehienbat, baina material galkorrak izaki, orduko idatzi asko eta asko ez zaizkigu gure egunetara heldu. Material gogorretan grabatutakoak, berriz, iraun egiten du eta eskerrak horri informazio ugari jaso dugu antzinateaz. Euskararen kasuan idazle erromatar klasikoaren testuetatik baino askoz gehiago heldu zaigu epigrafia-tik, batez ere hilarri eta aldareetatik.

Eta horiek biltzera jo dut nik liburu honetan.

Askotariko epigrafeak ditugu, txanponak, miliarioak, oroitarriak, ostrakak... zuk, hala ere, oraintxe aipatu dituzunak ekarri dizkiguzu liburura, aldare eta hilarrietakoak. Zer dela-eta?

Ugariak direlako, askogatik. Eta bestelakoetan euskarazko izen oso gutxi agertzen delako. Hazparneko Harria, esaterako, bestelakoa da. *Novempopulania*-ren sorrera ospatzeko eraikitako harritzarrak ari naiz, inskripzio luze bat duena. Historia aldetik oso inportantea,



“Bitxia da Irulegiko eskuarena. Izugarrizko boom mediatikoa izan zen, eta orain inork ez du hartaz gogoratu nahi”.

baina euskarazko izenik ez duena. *He-rauscorritse* jartzen duen Atharratzeko aldareak, berriz, euskal dibinitate baten izena dakar, eta interpretatzeko bidea ematen du hizkuntza aldetik zein beste ikuspegi batzuetatik.

Seguramenez bezainbat zalantzaz ari gara idazkunen aurrean... Non ditugu epigrafeak zuzen-edo interpretatzeko zailtasunak?

Izen batzuk oso gardenak dira, *Andere, Astoilun, Belsco, Bihotz* edo *Sesenco* ikustean badakigu zeren aurrean gauden. Beste batzuekin zalantzak sortzen dira, handiak edo txikiak; *Aherbelste* jainkoa, ziur asko, egungo *Akerbeltz* da, eta *Erditse* jainkosa erditzera doazen emakumeen babeslea. Baina ziurtasun osoz ezin esan, hala ere. Bestalde,

hainbat izen agertzen da, ziurrenik euskarazkoak izango direnak, ez baitira izendegi latindar, iberiar edo zeltetan agertzen, baina zer esan nahi duten ez dakigu. Esaterako, zer dira *Acan, Ageio, Bambits, Toliandots, Xuban...* eta beste hainbat izen? Ez dakigu.

Zer du Joakin Gorrotxategi filologoak aztertutako Akitaniak, beste zenbait eskualdek ez duenik?

Akitania oso handia da, eta Akitaniako parte batean, Goi Garonan, agertu da epigrafe gehien. Zaila da jakitea zergatik Convenatarren lurretan, Lugdunum Convenarum –egun, Saint-Bertrand-de-Comminges–, hiriburuaren inguruan agertzen diren ia euskal epigrafe guztiak, eta zergatik Landetan, Biarnon edota Ipar Euskal Herrian agertzen diren hain gutxi.

“ ”

**Negargarria da
altxor [epigrafeak]
horiekiko dagoen,
dugun ardura
falta**

Euskarazko epigrafeen banaketa irregularraz ari zara, alegia. Zertan da banaketa hori? Non daude gorderik?

Liburuaren hasierako mapa batean azaldu dut banaketa irregular hori. Goi Garona eta ondoko Goi Aturri ibarretan 205 euskal epigrafe agertu dira, eta gai-nontzeko guztian –hau da, Girona, Landak, Biarno eta Ipar Euskal Herria–, bost besterik ez. Eta suposatzen da eskualde horiek ere euskaldunak zirela. Hegoalde osoan 60 bat dira, Burgos, Soria eta Aragoi barne hartuta. Non dauden gorderik? Inon ere ez. Batzuk *in situ* daude, elizetako edo etxe partikularretako hormetan edo iturrietan ezarrita. Esku partikularretan epigrafe gutxi ere ez! Banaka batzuk Euskal Herriko museoetan ikus daitezke, baina oso gutxi.

Liburuan kontatzen duzunez, haiek ikustera urrutiko museoetara joan, eta batere ez dagoela ohartu zara...

Hori ere gertatu zaigu, bai. 2024ko udan Akitaniako museoak bisitatu genituen argazkiak ateratzeko asmoz, eta emaitza penagarria izan zen. Luchongo Sacaze museoan 25 bat pieza egon behar zuten, Eduardo Orduñak 2014an emandako datuen arabera, baina... museo hori itxita dago 2017az geroztik. Pentsatzen dugu han jarraituko dutela. Okzitaniako Tolosan ez genuen bakar bat ere aurkitu, nahiz eta teoriarik han mordoxka bat eduki behar zituzten. Eta Saint-Bertrand-en, berriz, hogeitaz pieza egon behar zuten lekuan, bi bakarrik zeuzkaten. Negargarria da altxor horiekiko dagoen, dugun ardura falta.

Aspaldi ari dira ikerleak euskarazko epigrafeak lantzen, beren interpretazio bitxi eta guzti, esaten duzunez. Zein ditugu egile eta iturri fidagarrienak?

Gure lagun batek esaten du euskaldunak honi heldu ziotenerako, gaia oso zaharra zela. Bladé eta Dumège izan ziren XIX.



**Euskarazko izena
erromatar garaiko a
eta hilarrietan**



mendearen erdi aldera “izen bitxi batzuk” aurkitu zituztenak, baina oraindik ez zituzten euskararekin lotzen. Handik laster, XIX. mendearen bukaeran, Sacaze eta Luchaire okzitaniarrak izan ziren epigrafeetan euskara ikusten lehenak. Hegoaldeari dagokionez, hortxe dugu Fidel Fita katalana. Koldo Mitxelenak garrantzi handia eman zien epigrafeei, eta gure denboran Joakin Gorrotxategi da autoritate nagusia. *Euskararen Historia* liburuiko *Euskara antzinatean* kapitulua oso gomendagarria da. Aipatzea merezi duten beste batzuk, Koldo Larrañaga azkoitiarra, Eduardo Orduña aragoiarra, Eduardo Alfaro arkeologo soriarra, Eduardo Aznar ikerle fiteroarra, Luis Mari Zaldúa gipuzkoarra –honek, adibidez, bederatzi euskal dibinitateri buruzko liburua egin du–, eta beste hainbat. Gaiaz arduratu direnen zerrenda oso luzea da.

Zer dela-eta egin diozu tarte berezia Irulegiko eskuari? Zorioneko gara, ala ez?

Askok badakite Iruña-Veleia auzian murgilduta ibili naizela eta nabilela, eta erreta ez, kiskalita nagoela. Gure historiako testigantza inportanteak eta langile profesional jator batzuk zakarretara bota dira. Eta Irulegikoan ere gauza berdintsua gertatzen ari zela sumatzen nuen, arbitroa berdina delako bi kasue-

“ ”

Gure historiako testigantza inportanteak eta langile profesional jator batzuk zakarretara bota dira

tan. Aurkezpen egunean denak ziren *zorioneku*, baina handik urtebetera *Fontes-en* [*Fontes Linguae Vasconum*] bederatzi artikulua agertu ziren, aurrez esandakoa errotik aldatzen zutenak. Testua zaila da, onartu beharra dago, interpretazio desberdinak egon daitezke, eta ezer gutxi ulertzen dela esatea ere zilegi da, eta norbaitek zalantzan jartzen badu euskaraz dagoela, ba tira, esan dezala. Horra arte ondo. Baina ezin da egin tranparik irakurketan. Liburuan uste dut garbi frogatua geratzen dela *sorioneku* jartzen duela, hasieran irakurri zuten bezala, eta ez *sorioneke*, handik urtebetera aho batez aldarrikatu zuten bezala. Eta ez dira “irakurketa-akats” bakarrak. Gaiari buruzko *status questionis* moduko bat

egin nahi izan dut. Bitxia da Irulegiko eskuarena. Izugarrizko boom mediatikoa izan zen, eta orain inork ez du hartaz gogoratu nahi.

“Oso narrasak izan gara gure ondarearekin, eta arlo honetan [epigrafia] are narrasagoak”, idatzi duzunez. Horretarainokoa dugu zabarkeria?

Pieze asko galduta dago. Antzinako argazki edo transkripzioren bat, agian, gorde da, baina piezaren arrastorik ez. Beste asko, esan dut, partikularren eskuetan daude. Baina lokalizatuta dauden epigrafeak museo edo leku batean biltzeko inolako ahaleginik ez da egin, ezta probintzia mailan ere. Euroeskualdea aldarrikatzeko elkartzen dira gure politikari eta kultur gile gorenak, baina sakabanatuta dauden piezak museo batean biltzea eta “balioan jartzea” ez zaie burutik pasatu ere egiten. Eta hara non Soriak erakusten digun bidea: Eduardo Alfaro urte honen bukaeran museo dotore bat inauguratzekotan da Santa Cruz de Yanguasen (Soria, Espainia), Tierras Altas eskualdean agertutako estelekin. Europatik lortu duen diru-laguntza baliatuko du horretarako. Museo horretan, besteak beste, euskarazko izenak dituzten dozena bat hilarri egongo dira. Eta piezen artean bada bat euskarazko esaldi osoa duena.



BIDEA

“Lan hau nik aurretik eginda-koekin lotuta dago. Bada kone-xioa. Beti gustatu izan zait histo-ria, eta zer esanik ez euskararen historia. Iruña-Veleiako grafi-toak eta liburu honetako euskal epigrafeak garai berekoak dira gutxi gorabehera. Euskarazko grafitoei buruz liburua argitara-tu nuen lehenik (*Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak*, Arabera, 2009), eta auzi orokorrari buruz beste bat hurrena (*¿Qué esta pa-sando con Iruña-Veleia?* Pamiela, 2018). Honetan murgilduta nenbilela, paleosardoari buruz-ko ikerketan ziharduen Blasco Ferrer filologo katalanarekin konektatu nuen, eta *Euskararen aztarnak Sardinian?* (Pamiela, 2017) liburua argitaratu. Hari berari tiratuz, *Euskararen ustez-ko kidetasunak Italian eta Korsi-kan* (Pamiela, 2021). Ekainean, berriz, hurrengo liburua argita-ratuko dit Elkar argitaletxeak: *Euskararen mende magikoak* (V-IX K.o.). Neurri batean honen ja-rraipena da. Baina horiekikoak gerorako utziko ditugu”.

“ ”

**Gaurko gizartea gero
eta akritikoagoa eta
ezjakinagoa da, eta
telebistan edo sare
sozialetan agertzen denari
begira dago ia soilik**

Han eta hemen barreiatuta dagoen materiala biltzea izan duzu asmoa, gorago esan dugunez. Haatik, sailkapenak egiten, izenen esanahia ere argitzen saiatu zara... jakinik irrist ere egingo zenuela. Zer diozu horretaz? Euskararekin edo orduko Euskal He-rriarekin zerikusia duen guztia biltzen saiatu naiz. 350 bat lekukotza daude liburuan. Extremaduran eta Sardinian agertutako epigrafeak ere badatoz. Eta baita erromatarren legioetan ibilitako euskal kohorteei buruzkoak ere: Cohors Vasconum, Cohors Vardulorum, Cohors Aquitanorum... Hori egin eta gero, izen zerrendak, abere eta zuhaitz jainkotuak, panteoi erromatarretako euskal inter-pretazioak eta abar jorratzen saiatu naiz. Eta, azkenik, hiztegia paratu dut: izenen esanahia, etimologia bilatzen ahalegin-du naiz, jakinda behin baino gehiagotan irrist egingo nuela. Ahalegintzen naiz nire ziurtasunak, zalantzak eta ezinak non dauden jakinarazten.

**Euskararen mugen barruan
agertutako latinezko epigrafiatik ez da
segitzen orduko jendea erromatarra
zela... Euskaradunak zirela
defenditzen duzu, oker ez banaiz.**

Bai. Beste lurralde batzuetan ere ber-dina gertatzen zen. Erromatar berbak Erromakoa esan nahi du, eta argi dago II. edo III. mendeetan Erroman edo Italian jaioko oso gutxi izango zirela. Inbaditzai-leekin etorritako soldaduek eta kolonoek bost edo sei belaunaldi zeramatzen he-men, bertakotuta egongo ziren eta gehie-nek bertako hizkuntza egingo zuten, hau da, euskara; zer esanik ez, betidaniko biztanleria autoktonoak. Hau ez da nire uztakoa, hau ikerle guztiek esaten dute. Baina bada datu bat ahaztu ezin duguna: Europa mendebaldeko hizkuntza guztiak galdu ziren latinaren eraginez, euskara izan ezik. Eta kontuan hartu behar dugu,

hala ere, iberiarrek, zeltek eta etruskoek-eta, hiztun gehiago eta gizarte ustez au-rreratuagoa zituztela.

**Beste gai bat, oso zeurea, liburu
honetara ekarri duzuna: Iruña-Veleia.
Zertan da auzia, zertan behar luke?**

Oso bazterretik ukitzen dut gaia liburu ho-netan. Horretaz badituzte bi liburu idatziak, eta blog bat. Nik uste mende honetan eus-kal kulturalan gertatu den eskandalu han-diena dela Iruña-Veleiako. Aurkikuntza zoragarri batzuk faltsutzat jo eta profe-sional jator batzuk deabrutu eta konde-natu dituzte. Eta neurri handi batean, eus-kara agertzen delako grafito batzuetan, eta gauzatxo batzuk ez datozelako bat zenbaitek orduko euskarari buruz duten ustearekin. Euskalduntze berantiarraren gaiak ere izan du bere pisua. Unibertsita-teko filologo batzuek eraman dute batuta, baina langintza horretan alderdi politiko guztien eta gure elite kulturalaren babes-a izan dute. Euskaltzainak, unibertsitate-irakasleak, kazetariak, idazleak... batzuek modu aktiboan eta beste batzuek beren isiltasunaz. Eta aztarnategia izorratzen ari dira hondeamakinaz. Salaketak jarri ditugu, baina alferrik. Honen aurrean ere jende handia mutu. Badakit hau esanda ez dudala lagun berririk egingo (barrez), baina nik horrela ikusten dut.

**Oihartzun handirik ez du izan zure
liburuak. Zer gogoeta eragiten dizu
horrek? Narraskerian segitzen ote
dugu? Argitaletxe “ez komertzial”-ak
ateratzeak ikusterik ba ote du?**

Argitaletxea “ez komertziala” izateak ez du eraginik izan, nire ustez. Elkarriketa haxe izango da prentsa idatziak liburuaz ematen duen lehen berria, lehen aipamena, eta haxe ere ez saiatu barik (barrez). Eta badira sei hilabete liburua argitaratu zela. Nik ez dakit narraskeria den, edo egileak zenbait erredakziotan duen ospe txarra, edo horrelako gaiak ez zaizkion inori inter-esatzen, edo denetik pixkat. Zenbat euskal filologo irten da gure unibertsitateatik azken berrogei urtean? Zientoka, edo mi-laka, agian. Pentsa, filologoei ez bazaizkie horrelakoak interesatzen... Dena dela, nik uste hau gaitz handiago baten sintoma dela. Gaurko gizartea gero eta akritikoagoa eta ezjakinagoa da, eta telebistan edo sare sozialetan agertzen denari begira dago ia soilik. Gu eta gu bezalakoak “frikia” gara. Garai batean, hemengo jende gehienak ez zuen bertsio ofizialik sinesten. Orain, be-rriz, egia ofizialak onartzen ez badituzu negazionista eta konspiranoikoa zara! ●

“I nestris popui a son compagns di chei altris e no volìn stâ intun museu”

“Argia” è il nome di una storica testata di informazione in lingua basca. Un settimanale che ha più di cent’anni di storia ed è distribuito in tutto il Paese Basco nella sua versione cartacea, con una tiratura di 60mila copie, ed è altresì disponibile sul web, dove conta altre decine di migliaia di lettori...



LUCA CHIANDONI

‘Il passo giusto’ friulerazko aldizkari digitalean Cira Crespok Carli Pup-i egindako elkarriketa argitaratu dute. Ezkerrean, ARGIAri buruz egindako sarrera friuleraz, eta eskuinean, Carli Pup friulera hizkuntza gutxituaren aldeko ekintzailea eta Onde Furlane irratiko kidea.

ARGIA friulerara itzuli da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Friulira egindako bidaia batek eman dezakeena. Kokatzeko (hasteko, geografikoki): Friuli, Mediterraneoaren iparraldean eta Alpeen hegoaldean; Europa ekialdeko alderdirik mendebaldekoena edo, bestela esanda, mendebaldeko ekialdeena. Italia eta Eslovenia aldera eraman bazaitu buruak, ez zabiltza urruti! Eta Carli Pup izena ezaguna egiten zaizu? Bera da, Cira Crespo eta *Il passo giusto* (ilpassogiusto.eu) friulerazko aldizkari digitalarekin batera, gaurko protagonista.

Gogoratzen al zara, irakurle, Cira Crespok Pup-i apirilean egindako elkarriketarekin? Carli Pupek hitz egin zigun bere herriaz, hizkuntzaz, militantziaz, zapalkuntzaz, borrokaz, sareaz... Ez baduzue elkarriketa irakurtzeko aukerarik izan (guztiz gomendagarria),


hemen lotura: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2913/carli-pup>. Bada, duela aste gutxi batzuk ARGIAko elkarriketaren zati bat friulerara itzulita argitaratu dute ilpassogiusto.eu webgunean! Ederra iruditu zaigu berria eta Cresporekin hitz egin dut, berria nola jaso duen ezagutu eta zuei zehetasunen bat gehiago kontatzeko.

Duela urte batzuk Friulira joateko gonbidapena jaso zuen eta hor ezagutu zuen Carli Pup. “Suns Europe jaialdia egiten dute bertan [Europako artista, hizkuntza eta komunitateen arteko topaleku eta elkartruckerako jaialdia] eta ni *Baginen* liburua aurkeztera gonbidatu ninduten... Carli izan zen nire kontaktua. Egun haiek, Friuli ezagutzeak, esanahi handia izan dute nire ibilbidean. Ikusi nuen ez gaudela bakarrik, European gu

bezalako beste kultura askorekin partekatzen ditugula arazo berdinak”, azaldu du Crespok.

Herri, kultura eta hizkuntza azpiratuen arteko saretzeaz mintzo dira elkarriketan eta hala azpimarratu du elkarriketatzaileak: “Gure kultur arazoak ez dira anekdotak, sistemikoak dira. European ezarritako sistema politiko-kultural baten emaitza, non batzuek erabaki zuten eta erabakitzen duten hizkuntza eta kultura batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak eta hobeak direla. Ezin diogu sistema horri guztiari bakardadean aurre egin eta ezin dugu horri buruz teorizatu eta pentsatu, ez badiogu gaiari modu global batean erreparatzen...”.

Herrien arteko harremanetatik ailegatu da, beraz, elkarriketa honen itzulpena eta hedapena. ●



Hatz-marka baino gehiago




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Segovia (Espainia), duela 43.000 urte inguru. Neandertal batek hatz pigmentu gorritan busti eta puntu bat margotu zuen 25 cm inguruko harri baten erdian. Harria 2022an aurkitu zuten arkeologoek San Lazaro leizean, eta, analisi multiespektral xehea egin ondoren, puntu gorri horren atzean hatz-marka nahiko garbia aurkitu dute, “munduko hatz-marka oso zaharrena”.

Archaeological and Anthropological Sciences aldizkarian argitaratu berri dutenez, hatz-aztarna hura gizonezko heldu batek utzi zuen seguruenik, baina David Alvarez Alonso arkeologoaren esanetan, “aztarna konparatzeko beste neandertal erreferentziarik ezean, zaila da hori egiaztatzea”. Eta, gainera, indibiduo hori identifikatzea ez da ikerlanaren interes nagusia, harri hori “neandertalek margotutako arte-objektu eramangarri bakarra” baita.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko María de Andres Herreroen ustez, aurkikuntzak “ekarpen garrantzitsua egiten dio neandertalen gaitasun sinbolikoari buruzko eztabaidari, testuinguru arkeologiko batean aurkitutako pigmentuz markatutako lehen objektua delako”. Eta zailantzarik ez dago testuinguru arkeologiko hori neandertalena dela eta, beraz, ez dela *homo sapiens*-en obra.

Gainera, hatz-marka ez zen erabilgarritasun testuinguru batean aurkitu, hau da, neandertal hark ez zuen marka lanabes batean ezustean edo nahi gabe utzi. Objektu hark helburu artistiko hutsa zuen.



ALVAREZ ALONSO ET AL.

Eskuinean, 2022an Segoviako San Lazaro leizean aurkitutako harria. Ezkerrean, analisi multiespektralaren ondoren, puntu gorriak agerian utzi zuen hatz-marka, inoiz aurkitutako hatz-markarik zaharrena.

Puntua okre gorritz margotu zuen, baina San Lazaro leize inguruan ez dago horrelako pigmenturik. Horrek esan nahi du neandertalek beste nonbaitetik propio eraman zutela.

Giza jokabide sinbolikoa, artea, alegia, gizaki modernoaren kontua zela uste izan da luzaroan. Baina azken hamarkadatan geroz eta ebidentzia gehiago dago neandertalek ere gaitasun artistikoa garatu zutela, eta ez imitazioz; egun eztabaidatzen dena da bi espezie edo azpiespezieek garai beretsuan baina modu independen-

tean garatu zutela gaitasun hori. San Lazaro puntu gorri horri esker, hipotesiak indar gehiago hartu du.

Neandertal hark harria topatu zuen eta harriaren pitzadurek atentzioa eman zioten; aurpegi luzexka bat ikusi zuen. Erdian sudur modukoa margotuta, harriari nola begiratu behar zitzaion adierazi zuen, besteek ere berak ikusten zuena ikus zezaten. Eta ikus dezagun. 43.000 urte geroago, artista hark puntu soil batez berretsi baitigu artea ez dela soilik *homo sapiens* garenon kontua. ●



O. LANDES-KULTUR

Erromatar izurdeak Austrian

Austraiko Wels hirian, erromatar garaiko Ovilava kolonian, mila metro koa drotik gorako villa aberatsa industen hasi ziren 2023an, eta, berriki, K.o. II. mendeko hiru mosaiko aurkitu dituzte. Arduradunen esanetan, aurkikuntza horretan “bat egiten dute kalitate artistikoak, testuinguru arkitektonikoak eta potentzial zientifikoak”.

Bereziki hiru mosaikoetako baten motiboak piztu du adituen interesa: bi izurde irudikatzen ditu, kostaldetik hain urrun egon arren. Eta horrek Inperioaren hegoaldeko nahiz iparraldeko probintzietako mosaiko tailerren artean zeuden harreman artistiko eta sinbolikoak jorratzeko bidea ireki die ikerlariei. ●

ERLEEN DANTZA: NATURAREN HIZKUNTZA AHAZTEZINA




MATTIN JAUREGI
BALERDIPEKO ERLEAK

Lurraren historian espezie askok komunikazio konplexuak garatu dituzte, baina gutxi dute erleen dantzaren pareko kode sofistikatuak. Erle langileek elikagai-iturrien kokapena adierazteko erabiltzen duten dantza ez da soilik naturaren mirari bat, baita zientziaren begietatik aztertutako fenomeno harrigarria ere. Gaur egun, komunikazio-sistema hau sakon ulertzea ezinbestekoa da biodibertsitatearen eta elikadura-segurtasunaren etorkizunerako.

KARL VON FRISCH ETA ERLEEN HIZKUNTZAREN DESKUBRIMENDUA

Erleen dantzaren zientzia Karl von Frisch biologo austriarraren ikerketekin hasi zen XX. mendearen lehen erdian. Frischek frogatu zuen erleek gorputz-mugimenduen bidez informazioa transmititzen dutela, eta 1973an Nobel Saria jaso zuen aurkikuntzagatik. Bere esperimentuek erakutsi zuten erle langileek "dardara-dantza" (*waggle dance*) deituriko mugimendua egiten zutela elikagaia aurkitutakoan. Dantza horren bidez, beste erleei esaten diete nora joan behar duten polena edo nektarra biltzera.

Baina nola funtzionatzen du sistema horrek? Erleek gorputza astintzen dute eta 8 formako ibilbide bat marrazten dute. Dantzaren norabideak eguzkiarekiko angelu bat adierazten du, eta astinduaren iraupenak distantzia markatzen du. Esaterako, erle batek 1 segundoz



dantza egiten badu, esan nahi du iturria 750 metro ingurura dagoela. Informazio hori jaso ondoren, erlategiko beste erle batzuk abiatzen dira zuzenki iradokitako lekura, eraginkortasun harrigarriarekin.

Frischen aurkikuntzak ez zuen soilik biologiaren ikuspegitik interesa piztu; gaur egun ere, erlezaintzan eta ekologian aplikazio garrantzitsuak ditu. Erleen dantzak frogatzen du intsektu hauek ingurunearekiko duten lotura estua, eta adierazten du habitataren aldaketek, kutsadurak edo klima-aldaketak erleen komunikazioan eragin zuzena izan dezaketela.

Gainera, erleen dantza ulertzea ezinbestekoa da polinizazioaren prozesua optimizatzeko.

Erleek nekazaritzan duten funtsezko papera ezaguna da: munduko labore jan-garrien %75 inguru polinizatzen dituzte.

Horregatik, zientzialariek erleen komunikazio-sistema hobeto ezagutzeko eta haien biziraupena bermatzeko ikerketa berriak egiten jarraitzen dute.

Azken urteotan, teknologia berriak ere aplikatzen ari dira erleen dantzaren ikerketan. Adibidez, adimen artifiziala eta robotika erabiltzen ari dira erleek dantzaren bidez emandako mezuak interpretatzeko eta, etorkizunean, erlategietan aplikatzeko. Zenbait esperimentutan, robot-erleak diseinatu dira, erle errealekin dantzatu eta haien jokaera gidatzeko gai direnak.

Gure mundua gero eta azkarrago aldatzen ari da, eta erleak horren lekuko dira. Beraiek irakatsi digute dantza bidez nola komunikatu, lankidetzan nola aritu eta ingurunea nola errespetatu. Orain, gure esku dago haien mezuari adi egotea eta dantza horrek jarrai dezan bermatzea. ●

A ZE FAUNA!

LO AIREAN EGITEN DUENA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Askorentzat uda soinuaren egi-lea da hegazti hori eta, seguruenik, hau dela eta mila izen ditu Euskal Herrian. Hauetako batzuek bere 'txrriiii-txrrriiii-txrrrii' kantu deigarriari egiten diote erreferentzia: txirritxori, zirringilo, irriego edo kirriilo, adibidez. Beste batzuk artxilloi, arrandera, kapantxoi, apeztxori, elai beltz edo zori beltz dira. Azken honetatik (txori-beltz) etor daiteke izen ofiziala: sorbeltz arrunta (*Apus apus*).

Eguraldiaren erakusle izateagatik ere bada ezaguna hegazti hau, Aztiri idazleak ere aipatzen du Lizarraga aldeko esaera: "Goizean txirrinoak egaran goitik, eguzkia ondotik". Enara eman dezake airean hegan ikusiz gero, baina sorbeltza handiagoa izateaz gain, kolorez marroi iluna da, ia beltza guztiz, eta papar ingurua pixka bat argiagoa du. Bere hegalek arku itxura dute. Hegazti hau enaretatik bereizteko gakoa, hegan egiteko moduan dago: enarek hegalek astintzen dituzten bakoitzean tolesten dituzte; sorbeltzek, aldiz, ez. Herri inguruetan taldeetan hegan ikustea da ohikoena. Bere kantua uda-soinua izatearen arrazoiak, negua Afrikan pasatzea da, eta maiatzetan heltzen da gurera umatzera; horrela, enararena bezala, sorbeltzaren presentzia ere udarekin erlazionatu izan dugu euskaldunok beti.



SORBELTZA

Apus apus

TALDEA: Ornoduna/Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik isatsera
17-18,5 cm.

Hego luzera 40-44 cm.

NON BIZI DA? Herriguneetan.

ZER JATEN DU? Intsektu hegalaria.

BABES MAILA: Europa mailan
babestua.

Hegalari izugarri trebea da, egun bakar batean 1.000 kilometro egin ditzakeela kalkulatzeko da eta kumatze garaian lurreratzen dira soilik; edan eta lotarako ere ez dira gelditzen. Hau horrela, ez dituzte hankak ia behar ere izaten eta hauek txiki-txikiak dituzte, hori bai, atzapar oso zorrotzekin, habiara sartzeko pareta ongi heldu ahal izateko. Izan ere, eraikinetako zirrikituetan umatzen dira. Aeroplankton bezala ezagutzen diren intsektu hegalariez elikatzen dira aho-zabalik hegan doazela. Gehien jaten dituzten intsektuak inurri hegalaria, zimitz, euli eta eltxoak dira; beraz, hegazti hau inguruan izateak izugarritzko abantaila dakar eltxoen populazioen kontrolerako. Sorbeltzak urtero habia berera bueltatzen dira, bikote berberarekin. Nahiko luze bizi daitezke, 21 urteko sorbeltzen erregistroak badaude.

Nahiz eta mehatxu handiegirik ez duen, baditu batzuk. Alde batetik, umatzeko lekuen eskasia, eraikinak berri-tzen direnean hegazti honen umatzeko lekuak desagertzen baitira. Eraikinetan obrak umatze aldiaren egitea ere mehatxu da, aipatu bezala urtero habia berera bueltatzen baitira, eta andamioengatik zirrikituetara ezin sartu geratzen da. Gatzka hauek konponbide nahiko erraza dute eta denon artean aurrera eramatea

izugarri onuragarria litzateke: eraikinak berritzerakoan habia-kutxak jartzea eta berritze lanak sorbeltzaren umatze garaitik kanpo egitea, gurera heltzen direnean umatu ahalko direla zihurtatzeko. Bestetik, nekazaritza geroz eta intentsiboagoa izateak dakarren pestiziden erabilera intsektu hegalarien populazioen izugarritzko beherakada eragiten ari da. Honek sorbeltzen populazioan eragina du, noski, beste hegazti intsektujaleetan bezala, janaririk gabe geratzen baitira. Azkenik, jende askok uste du sorbeltzek ezin dutela lur-rean egonda hegan hasi eta hauei hegan egiten laguntzeko airera bota behar direla esaten da. Baina hau gezurra da, sorbeltz osasuntsu bati berdin zaio lur-rean dagoen, primeran aireratu daiteke. Aireratu ezin den sorbeltz bat topatuz gero, hau gaixo edo ahul dagoen seinale da, beraz, mesedez, 112 zenbakira deitu eta basozainen bat gerturatuko da hegaztiaren bila. ●

GAITZ ERDI ETA LOTSA ONEKO NEKAZARIAK



Baztango Xurie (Arizkun) proiektuan mahatsa biltzen.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Natura aspaldi deuseztatu genuen. Hori da gure kultura, natura deuseztatzea. Oinarrian, nekazaritzaren kultura, goldearen kultura, kultibatzea, berezko natura deuseztatzea da. Guk nahi ditugun mozkinak eta etekinak jezteko moduko “natura” dugu gurean. Luzea da atzera-aurrerako bilakaeraren etorri-joana. Naturari bortxaz gainjarritako paisaia kulturalaren gauzatzea ez da berdantzabart antxitikoa. Gaur egun natura esaten diogun hori, garai batean, gure aurretik, izandakoaren eta gu eta gutarrik gabeko mundua berrezartzen denean bueltatuko denaren papur zirtzil bat besterik ez da. Hor irakurtzen da gure espeziea garbien definitzen duen hagintzeko sena, paisaia ez naturalean, parke ez naturaletan, leku ez naturguneetan. Hagintaritzari hori haginkadaka ezarri izan da gurean, Koldo Izagirrek dioen eran, edo haginzigorrarekin (*Taxus baccata*) emanez, mozkinbide; azken milaka urte askoan naturaren berezko garapena galaraziz; naturatik etekindun nor den eta nor ez bereiziz eta azken horien desagerpererako martxa hauspotuz; ziztu ez bizian baina urratsez urraska gu baino azkarragoak diren animaliak estigmatizatu eta sailean desagerraraziz; kalitatezko

jatenak, edatenak eta arnasak ahalbidetatzen dizkiguten bizidunen segida ke bafadan eta botika eta pestizida isurka garbituz; lotsaren arrasto zipitzik gabe etekinbide gero eta landuagoa, kimikoa, industrialagoa, mekanizatuagoa, zientifikoagoa erakusten duten jardunen pelotoi armatuak hedatuz; lurreko bizitzaren oinarri diren mikro eta makroorganismoen eta landareen ekinen gertatzea eta igarotzea “ez zait gustatzen” erlijiozko sasi-mistiko batekin larrutu, berdindu eta kitatuz. Eta guk, nik eta nik, sagardo zurrupa eta legatz mokadu artean gaitz terdi honetatik zer ondorengotza eraiki asmo dugu?

Gaitz terdi hori gaitz erdi bihurtu nahian ari den jende mordoari eskerrik asko. Jendea, pertsonak, lagunak eten-gabe batean ari dira kanpoan bezala Euskal Herrian gure politikarien eta hagintarien soldaduska gisako patroiz bat eta bakarrari aurre eginez. Hagintarien lema, nonahi, eta hemen eta lurrari lotutako gaiez ari garenean are lemagu, edo hobeto esanda eslogan, kontsigna edo manuago, hauxe da: Dirua edo ezer ez. Lurlangile lagun batek dioenez, politikarien lema da “Dirua ala hil”. Berdin dio.

Horri aurre egiten ari zaio jende ugari, gero eta ugariago. Batzuk hondea-

makinei buru eginez, beste batzuk baso biziak landatu eta zainduz, errespetuzko arrantzaleak, artzaintsak eta artzainak eta lotsa oneko nekazariak.

Nekazaritzan gertatzen ari da guda nagusia. Hagintariak xaxatu eta xoxez ederki hornitutako eredu industrialak bazter, urteak dira egunez egun osasuna eta elkartasuna ardatz izango dituen jendarteak egituratutako herri burujabearen alde han eta hemen eta hor eta haruntzago milaka esku ari dela. Guk lur osoarekin osatzen dugun sistemarekin begirunetsu jokatzeko ari diren esku guztiak, nekazaritza ekologikoan, organikoan edo biologikoan, nekazaritza biodinamikoan, nekazaritza sintropikoan, nekazaritza birsortzailean, nekazaritza biointensiboan, nekazaritza iraunkorrean, nekazaritza kontzientean, nekazaritza erresilienteen, nekazaritza agroekologikoan, permakulturan, nekazaritza emozionalean... Eskerrik asko! Den-denok lanean urrutiko lurralde landugabeetako bertatietan egiten dutena helburu: bizitzeko adina zerbaitegin, apur bat landu, lurra lantzearen kulturaz zer edo zer jantzi, baina gainontzeko bizidunei, landare eta animaliei bizitzeko utziz. Lurra tamainan lantzea denontzat ona da. Eskerrik asko! ●

BASOTXOA

NAFARROAKO EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA BERRIA IRUÑEKO BASOTXOAN



GARAZI ZABALETA

Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremanak sustatzeko asmoz azoka berria jarri du martxan Iruñeko Udalak, INTIA-Reyno Gourmetekin, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluarekin (NNPEK), Elikagai Artisanen Elkartearekin eta Bizilurrekin elkarlanean. Kanpoan, aire librean, Iruñeko Basotxoa parkean izanen da azoka, hileko bigarren larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. “Bertako ekoizleen eta artisauen 30 postutik gora egonen dira azoka honetan, eta aurtien maiatzean, ekainean, abuztuan eta azaroan egingen da”, azaldu du Isabel Pueyo Alcolea NNPEKko merkaturatze bideen arduradunak. Maiatzaren 10ean egin zuten lehen azoka, arrakasta handiz.

NAFARROAKO EKOIZLE ARTISAUAK, EKOLOGIKOAK ETA GONBIDATUAK

Azokaren bultzatzaile diren erakunde eta elkarteek aukeratuko dituzte azoka bakoitzean parte hartuko duten ekoizle eta artisauak, Nafarroako hainbat tokitatik hurbilduko direnak. “Seina postu aukeratuko dituzte Elikagai Artisanen Elkarteak, INTIAk, NNPEKk eta Bizilur elkarteak. Beste seiak Iruñeko Udalak aukeratuko ditu ekoizle artisauen erre-



gistro ofizialetik, eta azkenik, azoka bakoitzean, gehienez, kanpoko artisauen bi postu gonbidatu egonen dira”, azaldu du Pueyok.

Maiatzeko lehen azokan erosketa saskia betetzeko moduko eskaintza izan zuten: gazta, ezti, arrautzak, marmeladak, lekaleak, garagardoa, gozoak, zukuak, hestebeteak, bitxiak, angora ahuntzen mohairrezko jantziak... “Basotxoa parkea hiriko erdialdeko igarobidea da, jende asko pasatzen da bertatik, eta horrek erraztu egiten du jendea azoka postuetara hurbiltzea”, dio kontseiluko kideak. Izan ere, Takoneratik hurbil kokatzen den parkea ezaguna da iruindarren artean, baina baita kanpotik datozen bisitarien artean ere. “Herriarregan interes handia piztu du Basotxoa azokak, pozik gaude lehenak izan duen erantzunarekin”, gehitu du.

MERKATURATZE BIDE LABURRAK BULTZATZEN

Nafarroako ekoizle txikiek haien pro-

duktuak zuzenean saldu ahal izateko gune berria eskaintzea da egitasmoaren bultzatzaileen helburua, baita herritarren eta ekoizleen arteko zuzeneko harremanak sustatzea ere. “Gure ustez, garrantzitsua da nekazari eta artisauen eta kontsumitzaileen arteko konfiantzazko harremanak bultzatzea, baita landa eremuaren eta hiriarren arteko lotura egiten duten azoka tradizionalak sustatzea ere”. Basotxoa bezalako azoken bidez, herritarrek Nafarroako elikagaiak eta ekoizleak ezagutzeko aukera dutela adierazi du, eta horretarako erreferentzia bilakatu nahi du azoka berriak.

Elikagaien eta artisau produktuen postuez gain, hitzordu bakoitzean ekintza eta jarduera osagarriak ere proposatuko dituzte antolatzaileek, hala nola lantegiak, dastaketak, jolasak eta zuzeneko musika. “Herriarren sensibilizazioari begirako tailer eta ekitaldiak proposatzea da asmoa”, amaitu du. ●



Hitz gezidunak

EGITEN DUENA, EKINTZAILE JAUZI		ATERI DAGOEN DENBORA ZAKUR		PERTSONA- REN BAT, NORBAIT			HARRO BAZKA- LONDOKO LOALDIA		SENAR AISATU		BANANON- DOAREN FRUITUA EXALOTA	
BAGOIZ OSATUTAKO GARRAIO PARE BAT							TONTOR, PUNTA APAIZ NAGUSI JUDU					
		MODU ATZIZKIA ESKAINGAIK			UKAMEN IPAIZTERKO HONDARTZA, BIZKAIA	JANTZIA SASOIA (ALDERAN- TZIZ)						
AUSKAN MORROI, ZERBITZARI								LANDARE MOTA FRUITU GORRI				
				IZENA ABIZENA						SEIGARREN MUSIKA NOTA SETATSU		
NIGERIAKO HERRITAR	NAFARROAKO HARANA SASIJAINKO				ZARATA BASERRIKO ANIMALIA							ZUHAITZ MOTA, SAHATSA
							NAFARROAKO HERRIA IBALETAKO LOHI					
DAGO GORA, GORANTZ		ABEREA LEHERGAI EZAGUNA							ATZIZKI TXIKIGARRIA EUSKO ALDERDI JELTZALEA			
					EKINTZA ERITREAKO DOMEINUA						MEGA ZIRKO- NIOAREN IKURRA	
ARRISKU DOKTORE MAILA						MEATEGI GIGA						
								BIRA, ITZULIA				

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2	7	6	1	8			
8			2		5	7		9
							2	6
					4			7
	5			3		1	9	
1			5	9	7			
6	7	1		2	3	9		
		5				4		1
	8			1	2			3

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Isurkarien edukiera neurri.
- Ugari, asko.
- Ehun mota.
- Automobilak.
- Gauza, zer.

EBAZPENAK

IZAKI
OTOAK
LIHOA
ZINTZ
GALOI
5XS

3	9	6	3	4	8	7	5	2	1	7	1
8	5	6	8	9	4	7	1	6	3	2	5
2	8	5	6	3	9	4	7	1	6	3	2
7	5	4	6	3	8	9	5	2	1	7	6
4	7	5	2	1	6	3	8	9	5	2	1
6	1	4	3	7	2	8	5	9	6	3	2
9	6	1	4	3	7	2	8	5	9	6	3
5	2	1	6	3	8	9	4	7	1	7	6
1	7	6	3	8	9	4	7	1	7	6	3

V	R	I	I	O	G	R	O	L	K	O	D
Z	J	V	E	M	E	R	J	N	V	L	V
M	A	E	T	I	E	I	L	I	O	G	
U	X	J	A	V	A	B	V	K	V	D	
Z	L	U	M	R	V	I	R	E	G	I	N
V	S	L	O	S	V	E	U	N	V		
V	L	Z	L	V	I	O	G	U	P	O	J
N	U	S	V	N	A	K	O	R	R	O	B
V	P	O	R	V	U		O	R	E	I	B
N	I	P	E	R			N	R	E	L	
V	S	T	I	S			I	T	O	I	K
B	E	F					V	A	V		



Bihotzetik berriz pasatzea

 UXUE GUTIERREZ LORENZO

Termometroak 30 gradutik gora markatzen ditu, uda giroa nagusi da eta Bilboko kaleak herritar aztoratuz beteta daude. Horrelako egun epeletan arnasten den irrika puntu hori nabari da giroan. 21:30ak dira eta oraindik egun argia da kalean. Testuinguru horretan abiatu gara laguna eta biok Bilboko Kafe Antzokira, oso bestelako espiritua darion espazio eta kontzertu batera. Kafe Antzokia areto iluna izaten da, giro intimoa eta isolatua sortzen duen espazio berezia. Idoia Asurmendiren ahotsa, berriz, hipnotikoa bezain samurra da. Goxoa eta lasaigarria, eta, era berean, erraietaraino sartzen zaizkizu haren hitzak. Antzokiko atea gurutzatu bezain laster harrapatu gaitu Asurmendiren musikak. Kolpean aldatu zaigu aldartea, kanpoan utzi dugu asaldura, lasaitasunaren mesedetan.

Soineko zuri-beltza jantzita eta bidela-
gun dituen musikariek inguratuta, gogotsu agertu da Idoia oholtzara. Balioan jarri du Kafe Antzokia espazio berezia dela

berarentzat, Bilboko publikoari lore bat edo beste bota dizkio eta kontatu digu Kolonbian izan dela berriki, bere zenbait kanturen protagonista den herrialdea berriz bisitatzen. Aramaioko gazteak bi disko argitaratu ditu dagoeneko, *Ilun eta abar* 2019an eta *De amar y desandar* 2024an. Bigarren honen biran murgilduta dabil azkenaldian, eta bere kantutegiaren errepaso ederra eskaini digu.

Gogoratzea bihotzetik berriz pasatzea dela dio Idoiak, eta horrelako zerbait gertatu zaigu bere kontzertuan. Idoiak oroitzapen propioak kantatu eta kontatu dizkigu, lehen pertsonan argi mintzatu da, minak eta pozak berdin kantatuta. Nik gauza askorekin konektatu dut bere kantaldian... oilo ipurdia eta hotzikarak tarteka sentituta eta begiak malkotan bustita; zenbaitetan pozez, beste zenbaitetan tristuraz. Izan ere, gure oroitzapenetan murgiltzera gonbidatu gaitu musikariak. Eraman gaitu Kolonbiara *Un baile bajo el aguacero* kantuarekin, Artatzako

IDOIA ASURMENDI

NON: Bilboko Kafe Antzokian.

NOIZ: maiatzaren 29an.

aitonaren memoriara *Viejo refranero*-rekin, Gaztelako familiari *La Castellana* eskaini dio eta errefuxiatuen aldeko aldarritz josi du *25. artikulua*. Etxean denok ditugun aulki hutsak irudikatu ditugu *Aulki jokoa* kantari esker, eta isilduak izan ziren eta diren emakume erreferenteak ozen ahoskatu ditu *Hitzetan*-ek. Eta, kontzertu osoa harilkatuz, elkar zaintzari gozararre egin dio.

Bakoitzak bere oroitzapen propioetara egin du bidaia, eta ondo baino hobeto inguratuta bukatu du uda giroko ostegun iluntzea Asurmendik. Bira honetako merchandisinga sortzeko baliatu du *Sarearena* kantuko "eskerrak oraindik elkar zaintzen dugun" esaldia musikariak. Eta hori izan da kontzertua: minak eta pozak, denak pasatzen dira bihotzetik behin eta berriz, eta oroitaldi horietan guztietan behar dugu eutsiko gaituen sarea. Eta, akaso, kontzertu hau ere bada elkarzaintza sare horren pusketatik txiki bat. ●

V. SEÑORA SARIKETA

Itzulera bat: señorak eta señoritak

Señora Sariketaren V. edizioa izan da 2025ekoa, benetan berezia: aurtengo bertsolari parte-hartzaileak plazak utziak zituzten andre eta genero disidenteak izan dira. Binaka egin dute plazara itzulera, saioetarako giro goxo eta xamurra lagun.

 PAULA AMILBURU IZARGARI  OLI ARTOLA APEZTEGIA / ARGIA CC BY-SA

Bi kanporaketa eta zazpi bikotek kantatu ondoren, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean izan zen finala, aurreko saioetik igarotako bi bikoterekin: Amaia Elizagoien eta Malen Alzuart, eta Joane Aldalur eta Irati Tolosa. Finala osatu zuen azken bikotea ohorezko señorena izan zen: Kristina Mardaras eta Rosi Lazkano. Gai-jartzen, berriz, Aizpea Garmendia ibili zen.

Saioa baino lehen nabari zen giroa Iruñeko kaleetan. Jende talde ederra batu zen, hain zen handia batzuk bazkaltzeko sarrera gabe ere geratu baitziren. Marianito pare baten ostean, beraz, bakoitzak bere bideari ekin zion elkartuko zituen saioa baino lehen.

Zaldiko Maldikon zerbitzatutako menua, ze menu eder: erremolatxa pateaa,

zainzuriak, entsalada, garbantzuak eta helatua. Elkarte kanpoan eta barruan sumatzen ziren bi bero mota: zientifiko edo celsiusetan neurtzen duguna; eta final honek sortutako elkarketarena. Kafearekin batera, gainera, aurtengo sariketan estreinakoz eta eskusiban egin-dako puruak ere atera zituzten. Ekaitz perfektua sortzeko osagai guztiak.

Arratsaldeko bostetan ekin zioten saioari ehun bat ikusleren aurrean, kanpoan bazkaldu zutenak ere ordurako lekua hartuta zeuden-eta elkartean. Hasteko, bikote bakoitzak agur berezi bat kantatu zuen. Elizagoien eta Alzuart *Abadiñoko Karmen*txu doinu hasi ziren saioari errebaso txikia ematen, beste bertsolarien aipamen, broma eta abarrekin. Mardarasek eta Lazkanok lehen

aldiz elkarrekin kantatzen zutela aipatu zuten, tartean telefono dei batean zeudela. Aldalurren eta Tolosaren agurra jantzi, dantza eta *performance* eta guzti etorri zen, eta kutsu ironikoan “Bertsolarien pare /jarri ginen halare /zer litzateke bertsoa /mediokritade gabe /zer litzateke bertsoa /señorarik gabe” kantatuz Señora Sariketaren edizio bereziaren ildo gorpuztu zuten.

Aipatzekoa da, baita ere, saioko protagonisten inguruan bazeudela antolakuntzak izendatutako *coach*-ak: Madi Ane Txoperena eta Amaia Iturriotz, bertsolariak nahi eta behar zuten momentuan laguntzeko prest zeuden figurak (azkenerako ikusle bilakatu zirenak, bertsolarien maila ikusita). Saioak aurrera egin zuen lehen ofizioarekin,

bikote bakoitzak elkarrekin kantatu beharrekoa nahi zuten doinuan. Ederki ibili ziren seiak, baina aipatzekoa da Lazkanok eta Mardaresek kantatutako ofizioa. Gaia autobiografikoa izan zen: bertsolaritzan ibilbide luzea izan duten bi bertsolari ziren eta lehen aldiz ari ziren oholza partekatzen. Ofizio hunkigarria izan zen, bakoitzak bere ibilbide-tik Señora Sariketan kantatzeko aukera izanaz mintzatu baitziren. Mardaras hasi zen kantuan: “Ta traba batzuk egon dira bai /ni jua naizen bidetik /baina hemen nago señora jakin /etorri naiz zuengatik /pentsatu eta ia irtetzen zait /negarra begietatik”. Eta Rosik erantzun: “Ni berrogeita hamar urtekin /hasi nintzana bertsotan /egia esan asko-askorik /ere enaiz jardun hontan /baina hala ere bertsosai buruz /ibili ohi naiz askotan /ta berriz ere hasiko nintzan /holako hau bizitzekotan”.

Lehen ofiziotik publikoa bero zebilen errepika guztiak ozen kantatuz eta txaloak gogor joz. Hurrengo ofizioan bikoteak nahastu zituzten. Elizagoienek

eta Lazkanok ofizio ederra osatu zuten. Lehen, etxeko dekoratzaile izanda eta Lazkanori aholku pila eman ondoren, bigarrenaren etxea bisitatzera joan eta konturatu da kasurik egin ez diola. “Zure etxera iritsi /ta dena urdina /arraun bat, aizkora bat /ta hor ikurriña /Rosi, zu gauz bat zara /zu zara makina” bota zion Elizagoienek eta Lazkanok “nahi dezuten etorri /berriro honuntza /ta lasai deitu behar /badezu laguntza” esanaz amaitu zuten.

Aldalurrek eta Alzuartek juergan ton-teatu eta hurrengoan kontzertu batean elkartu ziren biren paperetik kantatu zuten, maitasun eternala kuestionatuz. Mardarasek eta Tolosak osatu zuten azken ofizioa, eta saioak orduan egin zuen eztanda. Mardarasek generazio gazteagoen hiztegia ekarri zuen oholtzara, 70 urteko bi señora zirela puruak erretzen zituzten gizonez inguratuta. Egoera horretan, Mardarasek puru bat hartu eta elkarri pasaka hasi zirenean esan zion Tolosari: “Ta eskutan hartuta nau/ ni neu Fariasa /gustoa ederra du/ usaina

demasa/ ze esan didazu zu zeu /zarella nire *crush*-a”. Ofizioa elkarri eskua emanda amaitu zuten Tolosaren azken bertsoarekin “zerbait sentitzen det nik /ta ezin det uka /baina gaurko arratsa /nola behar den buka /Kristina, goazen biok /eskutik helduta”, publikoari gutxi falta izan zitzaion txaloka aulkitik altxatzeko.

Bertsolariek puntuka ere egin zuten hironaka: Euskaraldiaz batzuk, eta besteek ume jaio berrien oparien inguruan. Jarraian, bakarka ere kantatu zuten Elizagoienek, Lazkanok eta Aldalurrek, errimak emanda hiru bakarkako eder osatuta. Lazkanok jubilatzeaz dagoen langile baten paperetik kantatu zuen, eta Elizagoienek Aroztegiko auzipetuen gaia ekarri zuen oholtzara, bere alabak militantziaz erakutsi dion amaren paperetik: “Ezta nerea izandu /inoiz ere politika /egia erran egon naiz /luze beti eserita /baina alabak jaso zun /egun batean gonbita /ta dabil eskubideen /eta lorpenei segika /ikusten dut ta ulertu /dezaket bere logika /nahiz ta beldurrak





batzutan /ni uzten nauen etsita /erran diot izango naiz /ni gaur zerorren tirta /erakutsi baitidazu egiten autokritika”.

Aldalurren bakarkako gaia hau izan zen: bere herritik hiri batera sexiliatu dela urte batzuk pasa direnean, herri- ra bueltatzen den bakoitzean begiradak somatzen ditu oraindik; hala ere, gero eta min gutxiago ematen diote. “Disidenteon bizitza ez da /gehienetan perfektua /sexiliatzea ez da izaten /erabakia, hautua /nahiz eta buelta askotan izan /den gauza nahiko estua /gaurtik aurrera ez da izango /ezkutua diskretua /nere alboan baitago kide /transfeministen eskua” kantatu zion lehen bertsoan gaiari.

Koplatan amaitu zuten saio puntuagarria, finaleko saioa ikustera joan ziren eta noizbait bertsoan aritu ziren baina plazak uzti zituzten hiruren paperetik Alzuartek, Tolosak eta Mardarasek. Ale ederrak utzi zituzten bertsoaldian, hasieran beren buruetaz fikzioetik barrezka eta ondoren ohorezko señoiei aitortza eginez. “Ai ama ta entzun al dezue /bertsolaria Kristina /hori bai bertsolaria /eta hori bai señoia fina” kantatu zuen Tolosak eta “Hoiek guztiek egiten dute /baina Kristinak doblea /begira ze porte ze ahotsa /ze emakume dotorea” gero Alzuartek.

Jardun puntuagarria amaituta, sorpresen momentua iritsi zen. Saioteko sukaldariei sariak banatu zitzaizkien egindako lanagatik, eta Señora Sarike-

tako antolakuntzan ibili direnek azken bost edizioak errepasatzen zituen bertso sorta eder bat kantatu zuten, erreleboari ere aholkuak emanez. Hala zioen sortako azken bertsoak: “Ez zaizue faltako /jenderik, indarrik, /pamelak erosteko /boutique-rik, bazarrik, /ez plazara itzuli /nahi duen izarrik. /Señora da amets bat /sortzea itzarrik. /Guk ez dugu urrezko /palkoen beharrik /jarraitu dezazuen /nahi dugu bakarrik”.

Tartean, publikoak noizbehinka eta espontaneoki sintonia kantatzen zuen txaloez lagunduta eta amaiera gabeko



bukle batean sartzen zen jende guztia. Baten batek ez bazekien sintoniaren letra, zazpigarrenerako hitzez-hitz ohizkatzen zuen.

Epaileek ordurako bazuten erabakia hartuta: saioko pameladun Amaia Elizagoien eta Malen Altzuart izendatu zituzten. Jone Uriak jarri zizkien pamelak,



azken pameladuna izandakoak. Azken hori ere, ohitura den bezala, epaile lanetan aritu zen Maider Alday, Larraitx Trojaola eta Estitxu Agirrerekin batera, bertso saioa modu kualitatibo eta asanblearioan epaituz. Tokado saria, gehien hunkitu duen bertsolariarena, saioko beste laurentzat izan zen, hain saio ederra egin baitzuten denek. Saria Eukene de los Aires aurreko sarituak jarri zien. Epailleek hala erabakita, tokadoak hiruhileko bana pasako du lau horien buruetan, hurrengo ediziora arte.

Seikotearen azken agurrekin amaitu zen saioa. Dударik gabe, mukizapiak eta txaloak izan ziren nagusi momentu honetan, inor indiferente utzi ez zuen saioari bukaera magistrala eman zion momentua. Aldalur eta Tolosa hasi ziren elkarrekin prestatutako agurra kantatzen, haien estiloan, estribilloak honela zioela: “Maite degu edan /nahi degun gintonika /maite señorona /ta maite señorita /bukaera txar bat /ta bere errepika /maite deu bertsoa /de-nean hain polita”.

Mardarasen eta Lazkanoren agurrek hunkitu zuten bertan zegoen oro. Lazkanok bihotzetik kantatu zituen bere azken puntuak: “Goizian jeiki naizenen /urduia, umila /eta orain sentitzen naiz /harroputzen hurbila /saioa bueno ez dakit /karratu borobila /buruak ez dakit /zeukan gorputzak duen taila /señoratarroi esker mila /aportatzera etorri ta /hau da sari pila /señoratarroi esker mila /guarkoa ahaztutzea /bihurtuko zait zaila”. Mardarasek, bere paperean sartuta, pelutxezko chihuahua bati helduta kantatu zuen agurra: “Ustez eman behar nuen /gaurkoan egurra /baina nonbait sartu zait /barrura beldurra /baina aitortuko det /hau gauza ziurra /saioa bihurtu zait /neretzat voyeurra /pozik goaz etxera /ni eta txakurra”.

Pameladunen agurrekin amaitu zen V. Señora Sariketa. Malen Altzuartek bi koplak hauek kantatu zituen hurrenez hurren: “Izan da zer ospatu /izan da zer goza /gaur zuen aitzinean /a ze sei jainkosa”; “Zazpi auziperatuei /gure besarkada /sententzia dena dela /hor egongo gara”. Amaia Elizagoieneke beste honakoarekin eman zion saioari amaiera: “Ze polita izan zen /zu ezagutzea /elkarrekin eraikiz /bertso lezea /mundu bat hozkatzeko /genuen gosea /baina gosea beti /ez dago asea /berriz kantatzea /da zu oroitzeko /behin piztu gintuen /sua mantentzea /sumatzen da gurekin /zaude, Haizea”. ●





LIBURUA

Libra zaitez beti azal zurien eraginetik



TXORI GORRI. ANDRE SIUX BATEN IDAZLANAK ZITKALA-SA

TESTU ZAHARRAK, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Zitkala-Sa hegoaldeko Dakoten erreserban (AEB) jaio zen 1876an. Eskolan asimilazioan oinarritutako hezkuntza jaso zuen, eta horren ostean unibertsitatean ikasi zuen. Andereño lanetan hasi zenean eta gobernuak bere komunitatea desagiteko trikimailu politikoaren konplize sentitu zenean hartu zuen Zitkala-Sa izena, Txori Gorri. Eta bere herriaren ipuinak jaso eta idatzi nahi izan zituen erresistentzia keinu eta bizimodu bezala. Liburu honetan aurki ditzakegun ipuin edo pasarteen jatorrizko liburuak hainbat dira. Antologia moduko bat da, beraz, esku artean duguna: Zitkala-Sa idazlearen obraren zati bat, hain zuzen ere.

Garaian bere lanak egin zuen ekarpena handia izan zen. Izan ere, diskurtso antikolonialak bogan egon aurretik idatzi zuen egileak bere komunitateaz zibiliza-

tuak balira bezala. Eta zuriak dira anker bezala deskribatzen direnak (diskurtso hegemonikoak kontrakoa defendatzen zuen une historikoan). Finean, komunitatearen ipuinak eta bere esperientzian oinarritutako oroitzapenak idatzi zituen antikoloniala zen begirada bat jaso zuen bere testuen bidez.

Zitkala-Saren kontakizuna inpaktuzkoa da, indar hegemoniko, politiko eta interes ekonomiko zegoen alde bakarreko kontakizuna kolokan jartzen duelako; eta indigenen komunitateak bizi izandakoa errealagoak diren terminoetan birpentsatzeko bere lana ezinbestekoa izan zelako.

Bere bizipena bezain konplexua da liburu honetan aurkituko duguna: noma da izan zen eta genozidio bat bizi izan zuen komunitatearen alaba da (eta ahozko literatura, ipuinak, esaerak aurkituko

ditugu), erreserba batean jaioa (eta antropologikoak diruditen pasarteak irakurriko ditugu: sua nola egiten zuten, nola bizi ziren...), eskola katoliko batean interna ikasi zuena (erlijioak asimilazioan izan zuen eragina nabarmena da bere testuetan, Bibliaren agerpena...) unibertsitatean ikasi eta emakume berria izan zitekeenaren sorkuntza bizi izan zuen, indigenen identitate eskubideak –eta humanoak– defendatu zituen aktibista izan zen.... Pasarte laburrek osatzen dute liburu, nahi duenak zatika irakur dezan.

Nick Estes *Gure historia da etorkizuna* edo Roxanne Dunbar-Ortiz *An indigenous peoples' History of United States* liburuen irakurketak eragin zidan indignazio eta haserre bera piztu dit liburu honek. Kontatzen dutena gertatu izanagatik, eta errelatoaren gaineko boterea betikoek eduki dutelako ere bai. ●



MUSIKA

Amaiera ederra Otelloarekin



E. MORENO ESQUIBEL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBERen denboraldi hau amaitutzat ematen dugu mundu osoan ezagunenetakoa den obra batekin: *Otello*. Klasiko bat da. Ekintzaren muina jeloskortasun-sentimendua dela esaten da. Ez dut ezetz esango. Baina, nire ustez, obra honek izugarri manipulatzaren duten pertsonen arriskuaz hitz egiten digu, pertsona horiek nortasun ahuleko beste pertsona batzuek ekintza izugarriak egitea lor baitezakete.

Manipulazioaren ondorio larriak. Eta denok ezagutzen ditugu manipulatuzaile handiak gure inguruan. Kontuz haiekin!

Verdiren *Otello*-k, ekintzaren bidez sentimendu ikaragarri horiek transmititzeaz gain, aria zoragarriez gozatzeko aukera ematen digu, oraingo honetan, lehen mailako bakarlariak interpretatu zituztenak.

Emanaldi honetan izan genuen lehen sorpresa positiboa orkestrarena izan zen. Dakigunez, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren grebaren ondorioz, beste talde bat bilatu behar izan zuten. Azkenean, Kieveko Orkestra Sinfonikoa –

gaur egun Alemanian finkatua dagoena gerraren ondorioz– izan zen Euskaldunak aritu zena. Entsegu gutxi egin bazituzten ere, ongi, sendo eta dotore jo zuten une oro. Ziur asko, Francesco Ivan Ciamparen zuzendaritza ona dela-eta, beti hain segurua.

Eszenaratzeari dagokionez, ez zen ezer azpimarragarri izan. Eszenografia eremu klasiko batean mugitu zen, eta batzuetan eskertzen da. Ezer berezirik ez, baina kirrinkarik ere ez.

Ahots bakarlariak dagokienez, orokorrean maila oso ona izan zen. Jorge de León, Otelloren paperean, sinesgarria izan zen –nahiz eta bere jantziek ez zuten bere papera bereziki islatu–. Ahalmenez betetako tenorea da, eta ahots indartsua du, nahiz eta agian fintasuna edo ñabarduren prisma askotarikoa falta zaion. Une bikainak izan zituen, halako arietan: *Esultate, Dio! Mi po-tevi scagliar*, edo *Credo in un Dio crudel*.

Desdemonari dagokionez, Ermonela Jaho sopranoak interpretatua, fintasun

VERDIREN 'OTELLO' OPERA

OLBEk antolatutako emanaldia.

MUSIKARIAK: Kieveko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Operaren Abesbatza.

BAKARLARIAK: J. de León, E. Jaho, C. Sgura, M. Atxalandabaso, A. Tobella, V. Esteve, F. Latorre, J.M. Díaz.

NON: Euskalduna Jauregian.

NOIZ: maiatzaren 17an.

hutsa izan zen. Agian gehiegizkoa ere bai. Une batzuetan indar eta intentsitate gehixeago espero genuen, baina ez zen iritsi. Hori bai, bere paperaren une garantzitsuenetan, hala nola *Sahatsaren abestia*-n edo *Ave Maria* zoragarrian, Ermonela guztiok in mente dugun Desdemona bihurtu zen. Gozoa, delikatuia, oso sentibera. Ideala.

Beste pertsonaia handi bat, Jago supermanipulatuzailea, Claudio Sgura baritonak interpretatu zuen, bere presentzia handiarekin inpresionatu zuena, eta eraginkorra izan zena, zalantzarik gabe.

Oso azpimarragarria izan zen Mikel-di Atxalandabaso tenorearen interpretazioa Cassioren rolean, bai aktorearen ikuspuntutik, bai bere ahotsaren afinazio perfektuarengatik. Primeran une oro.

Gainerako bakarlariak maila ona eman zuten. Azken batean, gau ederra izan zen, non osagai guztiak puntu-puntu egon ziren. ●

Fantasia pixka bat gehiago

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Hemen bakoitzak bere fantasiak ditu eta, norberak eduki ditzakeenekin bat etorri ez arren, komeni da besteenak kontuan edukitzea gauzak ulertzen saiatzen garenean. Ezkerreko peña, adibidez: noizbait etorriko den iraultza orgasmiko batekin amestuko ez balute, ez legoke ulertzerik egiten duten gauzen erdia ere. Hori bezain berdaderoa da, ordea, eskuineko hiritar prestu orok bere afrosiako politikoen artean daukala amets erredimitzaile bat, iraultzaren negatibo erabatekoa dena: estatu-kolpea. Gero fantasia horiek esplizituago bihurtu daitezke eguneroko antzerki publikoan edo erdi-gordean geratu ze, horixe, fantasiak dira: lotsa beti da osagaietako bat material horiekin jolasten eta enredando –ai, Iturgaiz, zu bai fantasia– hasten garenean.

Politika modu libidinal honen bidez interpretatzea lagungarria da azken

urte luzeetako dinamika nagusiak beste modu batera ikusteko. Izan ere, esango nuke ezkerrek kasik erabat erreprimitu duela bere fantasia iraultzailea; eskuina, aldiz, estatu-kolpeari buruzko pentsamendu autosexualak edukitzetik, ideia horrekin orgiak antolatzea pasa da.

Aste honetako gaia pixka bat zehazten hasi behar dugu honezkero eta, hara, konstatazio pare bat aurkitu dut patrikan. Baga: Isabel Díaz Ayuso ez da ordezkari instituzional arrunt bat, aktore pornopolitiko bat baizik; bere jarduera publikoa arrazoiaren bidez baino hobeto ulertzen da pultsioak kontuan hartuta. Biga: joan den astean Espainiako autonomia-erkidegoetako presidenteen bilkuran egin zuenak erakutsi digu zein den euskaldunon lekua estatu-kolpe espainiarraren fantasian: mapatik desagertzea.

Jakingo duzue, noski, zer pasa den. Hasi da Imanol Pradales EAEko lehen-dakaria euskaraz hizketan konferentzia horretan eta Ayuso, eusko berba leuna jasan ezinda, aretotik irten. Aurretik iragarria zuen, gainera, hori egingo zuela aldibereko itzulpen-zerbitzua eduki arren. Mezua argi dago: “Ez genuen gerra irabazi probintzietako hizkera horiek aguantatu behar izateko”.

Espektakuluak balio izan du behintzat Manzanarezen rive gauche-ko batzuek deskubritzeko euskararen potentzial subertsiboa: hura entzute hutsarekin Ayusok ihes egiten badu banpiroek eguzkia ikustean bezala, agian masiboki hitz egiten hastea izango da Madrilgo eskuin trumpistaren destituzioa ekarriko duena. Erregimenaren aurkako oposizioa: korri Complutenseko euskal ikasketetan matrikulatzea.

Lehendakariak ere utzi du esaldi onen bat. Jarri fondoko musika epikoa eta irakurri Kandido Urangaren ahotsez: “Zer askatasun mota aldarrikatzen du norbaitek, pertsona bati ukatzen badio hitz egin nahi duen hizkuntzan aritzeko libertatea?” –egia esan, Ajuria-Enean jarri duten modelo berri honek kasik gizaki batek bezala jokatzeko du: harrigarria da teknologia nolako abiadan ari den garatzen–.

Eta hala ere, zeozer faltan. Madrilgo PPren kontra, nork bere hizkuntzan aritzeko eskubidearen alde... Aber, ez dut esango horrelako gauzak defendatzea gaizki dagoenik, baina rolloa da, gutxi gorabehera, giza eskubideen alde zaudela esatea bezala. Oso-oso minimoetako zerbait. Falangismo pop berri honi erantzuten hastean, ordezkari politikoek euskaltzaletasun libidinalago bat atera beharko lukete behingoz pasatzera. Errespetua eskatzen ibiltzeak dagoeneko eman du eman behar zuena. Orain kontua errespetua galtzen hastea da, fantasia pixka batekin. ●



ARGIA BIZIKLETAZ BANATZEN DUGU



**LAGUNDU HERRIZ HERRIKO
SAREA OSATZEN**

Zure herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko
aukerarik ikusten baduzu, jarri gurekin harremanetan.

(+34) 943 37 15 45

komunitatea@argia.eus

ETOR- K1ZUNA DA

JASANGARR1TASUNA
BERR1KUNTZA
B1ZIBERRITZEA

Horrelakoa da Euskadiko lehen sektorea.
Gure gizartearentzat estrategikoa, gure
gastronomiaren oinarria diren elikagaien
kalitatea bermatzen duelako, landa-eremuari
bizia ematen diolako eta klima- aldaketaren
aurrean ingurumena babesten duelako.

**1 Euskadiko
lehen sektorea**

Hemen etorkizuna dago



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

hazi